

Kultura

Bel Bee Bee kanariarrak zabalduko du Berrizko
Tren Geltokiko Musikariak zikloa, bihar > 12



JAIAK!



Erabakitze eskubidea aldarrikatuz, oihalak josten

Durangaldeko hainbat herritan erabakitze eskubidearen aldeko mezuekin betetako oihalak josiko dituzte, bihar. Gure Esku Dago dinamikak hurrengo pausoa ekainaren 21ean emango du; egun horretarako jaialdiak antolatuko ditu Bilbon, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean. > 2

Lehior Elorriaga

Durangaldeko Bizikleta Eskola aurkeztu dute 35 gaztetxogaz

Durangoko, Elorrioko, Iurretako eta Abadiñoiko lau txirrindularitza taldek indarrak batu dituzte, eta Durangaldeko Bizikleta Eskola sortu dute. Baliabideak bateratu, eta eskualdeko harrobiari aupada bat ematea du helburu proiektuak. Abadiñon egin dute aurkezpena, Gerediaga auzoko ermitaren inguruan. Oraingoan, 7 eta 14 urte arteko 35 gaztetxo dituzte, baina eskolara batu gura duenarentzat atea zabalik dutela adierazi dute. > 15



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 • alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Zaldibar > 4

Umeen minbizia ikertzen laguntzeko ekimena abiatu dute

Durango > 6

Durangoko mugak bisitatuko dituzte bihar, Mugarri Egunean

Zornotza > 9

Iñaki Perurenak irakurriko du gaur jai solidarioko pregoia

Durangaldea > 2

Asteburu-pasa antolatu dute, eskualdeko ondarea ezagutzeko

Herririk herri

Euskarazko irakurketa sustatu nahian, Atxondon eta Otxandion

DURANGALDEA M.O.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpainagaz bat egin dute Atxondoko eta Otxandion udalek. Euskarazko irakurketa sustatzea da helburu nagusia, eta parte hartu gura dutenek hiru pauso bete behar dituzte. Lehenengoa, liburutegian liburu bat hartu, eta irakurtzea. Bigarrena, balorazio fitxa bat betetzea; trukean, %25eko finantzazioa daukan erosketa-txartel bat jasoko dute euskarazko liburu bat erosteko, Durangoko Hitz edo Elorrioko Iargi liburu dendetan. Hirugarren pausoa, antolatzaileen esanetan, liburua oparitzea da, "lagun bati, senide bati edo norbere buruari".

Durangaldeko ondarea ikusgai, asteburu-pasa baten bidez

DURANGALDEA M.O.

Gerediaga Elkartek Durangaldeko ondarea ezagutzeko ekimenak prestatu ditu maiatzerako. Esaterako, Maumeke portalea eta Otxandion plaza oinez lotuko dituzte asteburu-pasa baten bidez. Maiatzaren 9ko eta 10eko ibilaldian euskaraz emango dute informazioa, eta 30ean eta 31n gaztelaniaz. Bestalde, eguneko irteerak ere egongo dira aukeran. Maiatzaren 16an, hainbat dorretxe eta eliza bisitatuko dituzte -euskaraz-, eta, 17an, Momoiotiko nekropolia eta Muntzarazko dorretxea, besteak beste -gaztelaniaz-. Adierazi dute ahalik eta arinen izena ematea komeni dela, 946 818 066 telefonoan.

Erabakitze eskubidearen aldeko borondateak josiko dituzte bihar

Gure Esku Dago dinamika martxan dagoen herrietan, erabakitze eskubidearen aldeko mezuekin betetako oihalak josiko dituzte bihar



Elorrioko Gure Esku Dago dinamikako kideak atxikimenduak adierazteko oihalagaz. Lehior Elorriaga

DURANGALDEA Anboto

Gure Esku Dago dinamika Josketa Eguna antolatu du bihar. Euskal Herri osoan legez, Durangaldean ere hainbat herritan kalera irtengo dira, erabakitze eskubidearen aldeko borondateak "josteko".

Iaz Durango eta Iruñea lotu zituen giza kateak erabakitze eskubidea aldarrikatzea izan zuen helburu. Aurten, beste pauso bat eman du dinamika: erabakitze eskubidearen inguruko borondateak batzeari ekin dio herririk herri. Eskubide hori ideologietatik kanpo da-

goen oinarri demokratiko bat dela erakustea da asmoa, hau da, ikuspegi askotariko jendea ideia horren bueltan elkartzea.

Horretarako, oihalak dira aurtengo egitasmoaren ardatz. Herririk herri kolore askotako oihalak banatu dituzte, eta baikoitzean erabakitze eskubidearen aldeko hogeitaz atxikimendu jaso daitezke.

Bihar, ostera, oihal horiek elkarrekin josteko eguna izango da; jostorratza hartu, eta milaka borondatek bat egingo dute, oihal handi eta bakar batean. Abadiñon, Durangon, Elorri,

Otxandion eta Zornotzan, bihar bertan elkartuko dira; Berrizen gaurko egunera aurreratu dute. Eta Zaldibarren ere gaur hasiko dira atxikimenduak batzen.

Ondoren, ekainaren 21ean, Bilbon, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean egun osoko jaialdiak izango dituzte. Durangaldeko oihalak Bilbora eramango dituzte. Arratsaldean, San Mames futbol zelaian egingo duten ekitaldian oihal guztiak batu, eta hautetsontzi bat irudikatuko dute, hurrengo pausoa erabakitze eskubidea gauzatzea dela aldarrikatzeko.

"Elkartetara joan, eta feedbacka sortu gura dugu herritarrekin"



Iker Agirresarobe
GED Elorrioko kidea

> HERRI GALDEKETA J.D.

Elorrioren lan handia egin dute herritarrengana heltzeko. Elkartez elkarte ibili dira Iker Agirresarobe eta taldekideak:

Zer helburu izan duzue?

Iaz, giza katearen ostean, inkestak moduko bat egin genuen, eta konturatu ginen jende askok ez zuela argi Gure Esku Dago zer den. Horregatik, euren gure hurreratzeko hasi gara. Hamabost bat elkartetara joan gara: adibidez, kirol, kultura eta aisialdi elkartetara. Alderdi politikoe-

tako kideengana ere bai. Aurrerantzean ere gehiagorengana joateko asmoa dugu.

Zer harrera izan duzue?

Oso harrera ona izan dugu; hasieran, apur bat hotz egoten dira, baina politikagaz zerikusik ez duela ikustean lasaitu egiten dira. Filosofia azaltzeaz gainera, herritarrekin feedbacka sortu gura dugu; herritarrek Gure Esku Dago buruz duten iritzia zein den jakin gura dugu. Gure asmoa noizean behin eurekin batzen jarraitzea da.

EGITARAUAK HERRIETAN

ABADIÑO (bihar):

11:00etatik 14:00etara Ze-laietako probalekuan batuko dira, oihalak elkarrekin josteko. Adibidez, Talde Batuak elkarrekin dantza saioa, abesbatzaren kantaldia, umeentzako tailerrak eta sokatiralariren saioa egongo dira.

BERRIZ (gaur):

19:00etan Olakuetan plazan batuko dira oihalek atxikimenduak jaso, eta josteko. Musika, trikitilariak, tailerrak eta pintxoak egongo dira.

DURANGO (bihar):

12:00etan Oihaletan atxikimendua jaso, eta elkarrekin josiko dituzte Andra Mariko elizpean. Musika, sagardo kupela, janaria, materialagaz postua eta umeentzako tailerrak egongo dira, esaterako.

ELORRIO (bihar):

12:00etan Oihalak elkarrekin josteko batuko dira plazan. Musika taldeen emanaldiak, talo tailerra eta pintxoak egongo dira, besteak beste.

OTXANDIO (bihar):

12:30etik 14:30era Oihalak josiko dituzte. Zuzeneko musika eta luntxa eskainiko dituzte, eta argazki erraldoia aterako dute.

ZALDIBAR (gaur eta bihar):

Gaur: 17:00etatik 20:30era
Bihar: 10:00etatik 13:00etara
Udaletxe pareko plazan, oihaletan atxikimenduak adierazteko aukera eskainiko dute.

ZORNOTZA (bihar):

16:30ean Oihalen josteta Euskal Herria plazan: musika, txokolata, abesbatza...
18:30ean Kalejira koloretua herritik zehar jositako oihalekin, erraldoi, gaitero eta trikitilariak lagunduta.
19:00etan Sagardo kupela eta pintxoak Piken, musikagaz.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko apirilaren 24a,
13. urtea - 586. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Martinez de Arenaza
Yarza, Amaia Huarde Basabe.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onandia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña,
Martxel Zubia Arrinda,
Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Mañariko historia landu dute liburu batean, herritarren begiradatik

‘Mañaria, harrizko herria’ liburuaren aurkezpena egingo dute gaur, 19:00etan

MAÑARIA Markel Onaindia “Mendi hauen sakontasunean, Mañaria; Bizkaian ikusi du-

dan tokirik zoragarriena”. 1799an Euskal Herrira etorri zen Wilhelm von Humboldt fi-

losofo alemaniarraren esaldi horregaz hasten da *Mañaria, harrizko herria* liburu. Uda-



Javier Arteaga alkate ohia, Endika Jaio alkatea eta Txelu Angoitia.

lak eta Gerediaga Elkartek bultzatuta, herriko historiari buruzko liburu landu du Txelu Angoitia. “Liburu ezberdin” bat egiten saiatu direla esan du Angoitia prentsurrekoan: “Historia liburuak normalean abstraktuak izaten dira. Nire ustez, oster, pertsonak egiten dute herri bat”. Horregatik, 40tik gora mañariarren begiradatik osatu du 158 orrialde dituen lana. Gaur bertan egingo dute liburuaren aurkezpen publikoa, 19:00etan, Errose Bustintza kultur etxean.

“Argazki bat” osatzen

Mañariko natura, historia, ondarea, pertsonaiak eta bitxikeriak agertzen dira liburuan sailkatuta. Herritarrek direnez protagonista, atal bakoitzaren amaieran hainbat elkarrizketa labor irakurri ahal dira. Enrike Huerta Hontza museoko arduraduna, Julian Gorospe txirindulari ohia, Lourdes Areitio eliza-zaindaria, Josu Arkarazo danbolin-jolea, Itxaso Arrizabala abesbatzaren zuzendaria,

Silikos eta Trastorno musika taldeetakoak, Aitziber Areitio Jai Batzordeko kidea... “Guztien iritziak, gaur egungo Mañariaren argazki bat” osatu gura izan du Angoitia. Partaideen prestutasuna eta udalak emandako askatasuna eskertu ditu liburuaren egileak. Bestalde, Gema espeleologia taldeak, Juan Mari Uriartek eta Mikel Urizarrek ere lagundu diote artikulu batzuk idazten, eta Maria Puy Inzunza teknikariak produkzio lana erraztu dio.

Endika Jaio alkateak adierazi du aspaldiko ideia dela liburuarena, eta iazko udal aurrekontuan partida bat bertara bideratzea lortu zutela. Udalaren asmoa herrian irakurriko den liburu bat egitea zela esan du, eta edozeinek irakurtzeko modukoa gainera. Pozik agertu da emaitzagaz, eta, bere ustez, “Mañaria herri bizia eta plurala” dela erakusten du *Mañaria, harrizko herria* liburuak. 10 euroan ipiniko dute salgai, Mañariko liburutegian erosi ahalko du gura duenak.

Inbertsioak eurei kontsultatu barik erabaki dituztela salatu du EAJk

IZURTZA Joseba Derteano Joan zen asteko egunean, udalbatzarra egin zuten Izurtzan. Puntu batean kreditu aldaketa batzuk onartu zituen gobernu taldeak; udal kontuen soberakineko 133.000 euro hainbat inbertsion bideratu zituzten aldaketa horren bidez.

EAJk gogor salatu zuen gobernu taldearen (Bildu) jardunbidea. Oskar Zarrabeitiaren ustez, kreditu aldaketen bidez 2015eko aurrekontuak “modu estalian” aurkeztu dituzte, eta, dagoeneko apirila denez, aurtengo aurrekontuaren zirriborroa non dagoen galdetu zuen. Batez ere, gobernu taldearen “formak” salatu zituen. “Ez ditugu Hirigintza Batzordean eztabaidatu; ez dugu ezer jakin Ogasun Batzordean azalpenak jaso arte. Ez diguzue parte hartzeko modurik eskaini”.

Luis Ballarin alkateak gogoratu zuen une honetan udalak ez duela idazkari kontu-hartzaileirik, eta horrek ohiko funtzionamenduan eragin duela; baina, edozelan ere, “Aldundiaren oniritziagaz proposatutako kreditu aldaketak dira”, eta “aurrekontuen onarpenean diru atal horiek ajustatzeko aukera egongo da”. Era berean, “inbertsio posibleen berri izan duzue, batzuk zuek proposatutakoak dira, eta, gure ustez, ez duzue parte hartu herrian benetan garrantzitsuak diren hainbat gaitan”.

Eskolarako irisgarritasun proiektua onartu dute aho batez

BERRIZ I.E. / A.U.

Igogailua eta arrapala bi jarriko dituzte Learreta-Markina eskolan, irisgarritasuna hobetzeko. Azken osoko bilkuran onartu zuten proiektua aho batez, eta, guztira, 245.595 euro beharko dituzte obrak burutzeko. Behar horietaz gainera, eskolatik jantokira joateko eskaileretan estalkia ipiniko dute. Aterpearen ideia aurre-

igogailua eta arrapala bi jarriko dituzte eskolan, eta jantokira joateko eskailerei aterpea jarriko diete

kontuak prestatzeko batzarretan irten zen proiektuetako bat da. Hasierako ideia horri irisgarritasun arloko beste obra batzuk gehitzea erabaki dute udal arduradunek. Lanetarako Bizkaiko Foru Aldundiak diruz laguntzea eta kostuaren %60 estaltzea espero dute.

Pilotalekuko itoginak

Berrizko pilotalekuan itogin ugari daude, eta, euria egiten duenean sortzen diren arazoak aurre egiteko, estaldura berria jartzea onartu dute osoko bilkuran. Teilatua 100.000 euroko aurrekontua izango du, eta Aldundiak proiektuaren %80 diruz laguntzea espero dute.

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,
3. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 16
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 21
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MAIATZAK 9
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 16
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 23
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIALZA · APIRILAK 25
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · APIRILAK 25
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 23
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Umeen minbiziaren ikerketa diruz laguntzeko ekimena abiatu dute

Egutegi bat kaleratuko dute, eta abenduan maratoni solidario bat egingo dute

ZALDIBAR Itsaso Esteban Minbiziaren duten umeen gurasoen Gurutzetako ospitaleko La Cuadri del Hospi elkarteak diruz laguntzeko hainbat ekimen antolatzen dabilta Zaldibarren.

Andoni Mesa ostalaria eta Lola Sanabria dendaria dira ekimena abiatu dutenak. Onkologia arloan diru faltagatik bertan behera geratu den minbiziaren inguruko ikerketa bat diruz la-

guntzea dute helburu. Gainera, herritarrak hezur-muina ematearen garrantziaz kontzientziazten ere lagundu gura dute.

Kontatu dutenez, Zaldibarko Ilargi argazki taldearen erakus-

keta batek eman zien ekimenerako lehenengo ideia: herriko jendearen eta jende ezagunaren argazkiak agertzen dituen egutegi bat kaleratzea eta bildutako dirua umeen minbiziaren ikerketa dutenei bideratzea otu zitzaion.

Hasiak dira egutegirako lehenengo argazkiak egiten: La Cuadri del Hospi elkarteak gurasoen argazkia egin zuten, esaterako, joan zen asteburuan. Egutegiko hilabete bakoitzean hainbat zaldibartar eta pertsona ezagun agertuko dira: "Oraindik aurreratu ezin ditugun hainbat sorpresa izango dira", adierazi du Mesak. Egutegia irailerako prest edukitzea espero dute, eta, hilabete horretan, besteak beste, hezur-muina emateari buruzko berbaldi bat antolatzeko asmoa ere badute.

Abenduaren 19an, maratonia Abenduaren 19an, Zaldibarko udaletxearen pareko plazan karpa bat ipini gura dute, minbiziaren ikerkuntzan laguntzeko dirua bilduko duen maratoni solidario bat egiteko. "Zerbait polita antolatu gura dugu", dio-

te. "Argi dugu horrelako zerbait edozeini tokatu ahal zaigula, eta geuk ere asko eskertuko genuke horrelako egoera batean jendearen berotasuna eta laguntza".

Askotariko ekintzak prestatzen dabilta, eta programa aberatsa osatuko dute abenduaren 19rako: jendeak emandako gauzeekin tonbola bat egingo dute, eta kirola, zuzeneko musika, antzerkia eta umeentzako ekintzak ere egongo dira. Deiedra folk rock taldeak eta Revolta Permanent taldeak baieztatu dute dagoeneko, abenduaren 19an, Zaldibarren joko dutela, eta beste musika talde ezagunen baten parte hartzea lotzen saiatuko direla aurreratu dute antolatzaileek. Bestalde, tonbola solidarioarako kirol zein kultura arloko jende ezagunak emandako denetariko materialak ere biltzen hasiak direla aurreratu dute; futbol jokalariek sinaturiko kamisetak, esaterako.

Gero eta jende gehiago dabil, modu batera edo bestera, Mesa eta Sanabria zaldibartarrek martxan ipinitako ekimenera batzen, laguntzeko inplikatzeko.



Lola Sanabria dendaria eta Andoni Mesa ostalaria dabilta ekimena bultzatzen.

Elizaldeko igerilekuak konpontzen hasi dira

Urtarrilean, galdara gela eta aldagela urez bete ziren

ELORRIO Markel Onaindia Urtarril amaieran izandako euriteen ondorioz, urak gainezka egin zuen Elizaldeko igerilekuek galdara gelan eta aldageletan. Udalaren arabera, hodiekin ez zuten jasan ur kantitate guztia, eta, gainezka egitean, urez bete ziren gela bi horiek, kalteak eraginez. Arazoa konpontzeko lanak hasita daude, eta udalak 100.000 euro erabiliko ditu gastua betetzeko. Aseguru etxeagaz eta Aldundiak ezbeharreri aurre egiteko eskaintzen duen diru-laguntzagaz inbertsio osoa kubritzea espero dute udal ordezkariak.

Ekainaren 15ean hasiko da igerilekuen denboraldia, eta or-

durako obrak amaituta egotea aurreikusita dute, Joseba Mujika alkateordeak dioenez: "Hasi dira konponketa lanak, zabaldu beharreko egunean instalazio guztiak behar bezala funtzionatzen eta baimen guztiak indarrean egon daitezten".

Birritan egin du gainezka urak. 2014ko uztailean zabaldu zituzten igerilekuak, eta inauguratu eta egun gutxira ere urak gainezka egin zuen. Bilduk presaka ibiltzea egotzi zion gobernu taldeari.

Bestalde, atsedean hartzeko eremua 1.000 metro karratutan handitzen dabilta, eta instalazioetara joateko bidea ere badiabilta zabalitzen.



Elorrioko igerilekuaren inaugurazioa, 2014ko uztailean.

Bisita gidatuak egingo dituzte Montoiko zubian

Bihar, zapatua, izango da lehen bisita, 11:00etan

IURRETA Amaia Ugalde Ikusmin berezia sortu du Montoiko zubian Gerediagak eta Iurretako Udalak ipini duten argazki zaharren erakusketak. Argazki horiei buruz gehiago jakiteko, lau bisita gidatu antolatu dituzte, eta bihar, apirilak 25, izango da lehenengoa, 11:00etan. Bisitetan parte hartzeko Ibarretxe kultur etxean eman behar da izena.

Iurretako desanexioaren 25. urteurrena dela-eta antolatu dute *Montoiko iraganerako zubi*

Montoiko zubiko argazki zaharrei buruzko azalpenak emateko lau bisita antolatu dituzte

erakusketa. Biharko bisitaren ostean, beste hiru egingo dituzte: apirilaren 30ean egingo dute hurrengoa, 19:00etan. Maiazaren 7an eta 9an izango dira azken biak: 7koa 19:00etan, eta 9koa 11:00etan.

Arriaundi gozotegian sei langile kaleratu dituzte

LABen ustez, afiliatuen kontrako erabakia izan da

IURRETA A. U. Kaleratutako beharginen barietatean jaso zuten abisua mugikorreko Whatsapp aplikazioaren bidez. Erabaki horren atzetan, lehenago egondako kaleratzeen arrazoiketa bera dagoela esan du LABeko Fontso Aranguren: "Txostena bera da, orriz orri". Enpresaren antolaketaz gero, zerikusia duten argudioak ematen ditu, baina txostenak ez ditu konbentzitu.

Kaleratutako sei beharginetatik bost LABen afiliatutako

langileak dira, eta seigarrena, UGTkoa. LAB sindikatuaren ustez, afiliatuak izateagatik kaleratu dituzte beharginak: "Langileen eskubideen alde egiten dutenek traba egiten diete zuzendaritzari". Aranguren nabarmendu duenez, kaleratutako langileek, bere egunean, soldatetan zorra zegoela-eta, salaketak ipini zituzten LABen bidez. Azkenean, epaitegietan akordio ofiziala lortu zuten zuzendaritzagaz, eta hilero zorrak ordaindu ditu ordutik hona.

Axpen aterpetxea atontzen dabilta, gazte saharaiak hartu ahal izateko

ATXONDO Joseba Derteano Joan zen astean, Hamadako Izarrak elkarteak aurkeztu zuten Durangon. Elkarte horrek ume saharaiak kanpamentuetatik irteerako eta hona etortzeko aukera eskani gura die udan. Ekainean, hamabost ume ekarriko dituzte, eta Axpeko aterpetxean hartuko dute ostatu. Horregatik, elkarteak kideak eta udaletxeko langileak, elkarlanean, aterpetxea atontzen dabilta egunotan.

Aterpetxea garbitu eta pintatu egingo dute; argindar kableen azterketa ere egingo dute

Aterpetxe osoa garbitzen eta pintaketa lanak egiten dabilta. Horretaz gainera, argindar kableen eta ur hoditeriaren azterketa egin ostean, beharrezko konponketak egingo dituzte: "Ekainean saharaiak etortzen direnerako dena txukun eta prest izan gura dugu", esan du Rosa Elizburu alkateak.

Saharaiak ahalik erosoan egotea da udalaren helburua. Horrela, esaterako, Axpera datozen hamabost gazteek dohainik erabili ahal izango dute udal igerilekua.



Arkaitz Urigoitia, Eibarko Zaer Motorren urte asko eman eta gero, lurretako kontzesionarioa kudeatzen du.

“Zaer Motorrek oso harrera ona izan du Durangaldean”

Urteko autorik onenaren saria jaso duen Citroën C4 Cactus autoa aurkeztu du Arkaitz Urigoitia Iurretako Zaer Motor kontzesionarioaren kudeatzaileak

> BERBAZ Jone Guenetxea
Zaer Motorrek atek zabaltu ditu lurretan. Citroën markako kontzesionarioak lurretako egoitzan gustu eta behar guztietara egokitutako autoak eskaintzen ditu. Marka honen izarretariko bat Citroën C4 Cactus autoa da. Urteko autorik onenaren saria jaso ondoren, auto honek kalitate berme guztiak eskaintzen ditu. Arkaitz Urigoitia Ercilurruti durangarra da jaiotzez eta sentimenduz, baina 16 urte zituenetik Eibarren dauka bere bizitza eta lana.

Urte askoan Eibarko Zaer Motorren ibili zara lanean. Zelan sortu da Durangaldera etortzeko aukera hau?
Duela urtebete inguru Durangaldeko salmenten arduraren hartzeko aukera suertatu zitzaigun, eta, aukera ona zelakoan, ez genuen asko pentsatu beharrik izan. Niretzat poztasun pertsonala izan da hona etortzea.

Zaer Motorrek beste zein lekutan ditu saltokiak?
Iurretako sukurtsalaz gain, Eibarren salmenta gunea eta tailerra

ditugu. Mutrikun eta Ermuan ere baditugu agente puntuak.

Zabalkundea izan da, beraz?
Bai, Iurretako egoitza martxan jartzea Durangaldera zabaltzea izan da guretzat. Abadiñora, Elorriora eta gainerako herrietara heldu gura genuen.

Zelan hartu zaituztete Durangaldean?
Oso harrera ona izan dugu. Hemen goak garenez, inguru hau ezagutzen dugu, beraz, hori abantaila handia izan dela esan-



Lurretako Padureta, 3 zenbakian dago Zaer Motor.

go nuke. Ezagutzen ez duzun leku batera joatea zailagoa da.

Tailer zerbitzua Eibarren eskaintzen duzue?

Gaur egun, salmentak Iurretan egiten ditugu, eta tailer zerbitzua Eibarren dago.

Cactus autoa da denboraldi honetan Citroënen auto izarra. Zergatik?

Modelo guztiz originala da, bai diseinuan, bai kontzeptuan, eta, ekipamenduari dagokionez, gaur egunera arte guztiz ezezagunak ziren elementuak ditu: Airbump, Airbag In Roof eta Magic Wash elementuak, adibidez.

Saria jaso du, gainera.

Bai, urteko autorik onenaren saria eman diote estatu mailan.

Auto batek sari hori nola jasotzen du?

Urtero, 1973. urtetik, motorrean espezializatutako estatuko 36 kazetari batzartzen dira, eta, hainbat modelo berri analizatu ondoren, erabaki bat hartzen dute. Citroën C4 Cactus autoak urteko autorik onenaren saria eskuratu du, puntuazio oso altuagaz, gainera: 133 puntu lortu ditu, hain zuzen ere.

Zer beharrian duten gidariei aholkatuko zenieke Cactus? Nori zuzenduta dagoela esango zenuke?

Auto honek duen abantailak bat pertsona askorentzat izan daitekeela da. Auto batzuk, familiarak, esate baterako, oso zuzenduak daude gidari mota jakin bati, baina Cactus ez. Pertsona nagusientzat zein gazteentzat izan daiteke. Espazioa dauka, baina ez da oso handia. Beraz, publiko mota askorentzat izan daiteke.



ZAER MOTOR

Padureta, 3 · **Iurreta** - Tel.: 946 200 284
Apalategi, 1 · **Eibar** - Tel.: 943 707 033

“Batzuek sorpresa itzela hartzen dute Dimagaz muga egiten dugula jakitean”

Alpino Tabira mendi taldeak eta Durangoko Udalak antolatzen duten Mugarri Eguna ospatuko da domeka honetan; 08:30ean irtengo dira Andra Maritik

DURANGO M. Onaindia
Duela hogeitatu urte hasi ziren antolatzen Mugarri Eguna,

udalaren ekimenez, eta ardura Alpino Tabira mendi taldeak hartu zuenetik hamazazpi edi-

zio pasa dira dagoeneko. Jose Ramon Arrizabalaga Alpinoko kideak gogoratu du Durangok



luz antolatutako Mugarri Eguneako partaide batzuk, mugarri baten inguruan.

duen hedadura ezagutaraztea izan zela sortzaileen helburua. Herriaz informazioa emateko asmo horrek oraindik ere bizirik dirau, eta sarritan gertatzen den anekdota bota du Arrizabalagak: “Batzuek sorpresa itzela hartzen dute Dimagaz ere muga egiten dugula jakitean”. Domekarako, Mugarri Eguna antolatu dute berriro; 08:30ean irtengo dira Andra Mariko elizpetik.

Domekako ibilbidea bederatzik kilometrokoa izango da; lehenengo, Basobaltzako lehen mugarriraino heltzeko ia lau kilometroan ibiliko dira, eta, gero, handik Landakoko kiroldegirainoko bost kilometroak Durango eta Iurreta bereizten dituzten mugarrietatik egingo dituzte. Ibilbidea orokorrean erraza dela eta azalpenak emateko tar-teak hartzen dituztela esan du Arrizabalagak.

Alpino taldearen “urteko ekintza berezia” dela azaldu du Arrizabalagak, eta disfrutatzea ere badela ekimenaren helburua.

Maristak ikastetxeke eredu ezagutu dute 45 irakaslek

DURANGO M.O.

Maristak ikastetxea Provincia Marista Ibérica erakundeko partaide da, eta, astelehenean, sare horretako 45 irakasleren bisita jaso zuen, Durangoko ikastetxea eta bertako eredu ezagutzeko. José María Sanz Provincia Marista Ibericako ordezkariak adierazi zuen eurentzat Durangoko ikastetxea erreferente izan dela beti berrikuntza arloan, eta bertako ereditik zer ikasi badagoela uste du.

Gainera, erakundearen sare osoan pedagogia berri baten sakontzen dabiltzala esan zuen Sanzek: “XXI. mendean, horrela hezten ditugu ikasleak edo ez gabiltza ondo. Erlazionatzen, adosten eta arazoak konpon-tzen dakien jendea behar da”.

Argiterian eraginkortasun eta zerbitzu hobearen bila

Udala hainbat neurri hartzea aztertzen dabil

OTXANDIO Joseba Derteano Argiteria publikoa kudeatzeko modua aldatzeko neurriak aztertzen dabil udala. Argiteriaren mantentze-lanak eta eraginkortasun energetikoa hobetzea ditu helburu.

Bide horretan, argiteria publikoaren eta udal eraikinen ikuskapen energetikoa egin dute, eta hainbat ondorio utzi ditu; esaterako, leku batzuetan LED lanparak jarritz gero, urtebetean aurrez gutxiago diruagaz, lau urtean inbertsio hori ordaintzeko moduan egongo lirakeela uste dute, eta, horren ondorioz, herriko argiteria sarea hobetzeko aukera izango lukete.

Aldaketa horiek jasotzeko udala argindarraren kontrataziorako baldintza agiriak prestatzen dabil. Baldintza agiri horietan, argindar guztia

iturri berriztagarrietatik etorri beharko dela ere jasoko du Otxandioko Udalak.

Bestetik, energia zerbitzu enpresa baten kontratazioa egiteko baldintzak aztertzen dabil udala datozen lau urteetarako. Enpresa horrek bere gain hartuko lituzke argiteria publikoaren eraginkortasuna zein herriko argiztapena hobetzeko inbertsioak; era berean, argiteria azpiegituretako matxuren konponketa ere bere gain hartuko luke udalagaz adostutako baldintzetan.

Energia zerbitzu enpresa baten kontratazioa egiteko baldintzak aztertzen dabil udala

Haurreskolan matrikulatzeko epea maiatzaren 4an hasiko da

MALLABIA Jone Guenetxea Herriko Haurreskolan umeen izen-ematea egin gura duten gurasoei Mallabiko Udalak jakinarazi dienez, maiatzaren 4tik 13ra arte egongo da izena emateko aukera 2015-2016 ikasturterako, 0-2 urte bitarteko umei zuzenduta. Informazio gehiago jaso gura dutenek Haurreskolara deitu dezakete, 943 172 003 telefono zenbakira

Marixelen jaiak

Marixelen jaiak ospatuko dituzte Areition, maiatzaren 1ean. 11:00etan, meza egingo dute, eta, 12:00etan, Mallabiko dantza taldeak erakustaldia eskainiko du.

Era berean, asteburu honetan, apirilaren 25ean eta 26an, San Jurki jaiak ospatuko dituzte Berano Txiki auzoan.

Gaztañodiko parkean jolasean zebilela, errekarra jausi zen ume bat

ABADIÑO Itsaso Esteban Astelehenean, Zelaietako Aingeru Guardakoa ermitaren ondoko Gaztañodiko parkean jolasean zebilela, errekarra jausi zen umeari gertaturikoa bezalako istripuak saihesteko udalak beharrezko neurriak hartuko dituela azpimarratu du, asteon, Navarro alkateak.

Haurren jolaserako parkearen inguru horretan Atxarte errekararen alboetako harrizko murrak behar besteko altuerarik ez daukala eta arriskutsu dagoela aitortu du, istripuaren ostean, Abadiño alkateak. “Ikusiko dugu zelan egin dezakegun, baina zeozelan hesiren bat ipini behar dugu jolasgunean ibiltzen diren umeak babestuta egoteko eta horrelako arriskuak saihesteko”, adierazi du alkateak.

Zaurituta eraman dituzte herriko bi enpresatako bi langile, asteon

ABADIÑO I.E.

Aste honetan, Abadiño enpresa bitan gertatu diren bi lan-istripuren inguruko informazioa biltzeko ikerketa egiten dabil Osalan, Laneko Seguratasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Zelaieta auzoko San Vicente galdategian mantentze-lanak egiten zebilela larri zauritu zen langileak helikopteroz ebakuatu zuten, eguazten eguerdian. Gurutzetako ospitalera eraman zuten, San Vicente kooperatibako bazkidea den 45 urteko gizonezkoa.

Martitzenean gertatu zen, aldiz, Traña-Matienako Injektametal enpresako istripua. Lankideek azaldu dutenez, buruan zauri larriak zituela eraman zuten lankide bat Gurutzetara, helikopteroz.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

| | | |
|----------------------------|-------------------------|------------------|
| | | |
| J.E. Urrutia Capeau (2015) | Fernando Morillo (2014) | Governors (2015) |

clínica dental hortszklinika

b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA

Matrikulazio epea:

maiatzaren
4tik 13ra, biak barne
Etor zaitezte
Haurreskola ezagutzera!

0 eta 2
urte arteko
haurrentzat

JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA
San Roke, 4
Zabalarra eraikina
48200 Durango
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



Hauteskundeak

Debate publikoa egin gura du EH Bilduk Durangon

Alkategaiak aurkezten jarraitzen du EH Bilduk

EH BILDU Markel Onaindia Durangoko EH Bilduk debate publikoa egin gura du, eta, horretarako, eskaera luzatu dio gobernu taldeari. Koalizioak uste du udalak herritarren arteko hausnarketa eta eztabaida sustatu behar duela udal espazioetan eta hedabide publikoetan. Horrela, debatea, adibidez, San Agustinen egitea eta Durango Irratiaren bidez ematea proposatu du. Durangon hauteskundeetarako aurkeztutako bost hautagaitzen arteko eztabaida izango litzateke.

Bestalde, Durangaldean, herririk herri aurrera jarraitzen

dute EH Bilduko hautagaien aurkezpenek. Atxondon, Dabid Cobos da alkategaia, eta gestioa auzoen koordinatzaileen bidez eta herri mugimenduko kideekin egin gura dute.

Otxandion, Urtzi Armendariz da alkategaia, eta Miren Urigoitia da bigarrena zerrendan. Mañarian, Endika Jaio alkatea doa zerrendaburu, eta Ainara Areitiok ere errepikatuko du. Agustin Sarrionandia eta Ismene Uriarte daude izen berrien artean. Zornotzan, Urko Lopez zinegotzia da alkategaia, eta Itxaso Gerediaga eta Ander Uriarte ditu atzetik.



Atxondoko EH Bilduk hauteskundeetarako aurkeztu duen taldea.



Otxandion, Urtzi Armendariz –ezkerretik hasita seigarrena– da alkategaia.



Mañariko zerrenda osatu dutenak, plazan ateratako argazkian.



Zornotzako EH Bilduko hautetsien zerrenda.

Irigoras eta Isoird alkategai, Durangon eta Berrizen

EAJ M.O. Durangoko EAJk datozen lau urteetarako prestatu duen programa “durangar guztiak aintzat hartzen dituen bakarra” dela azaldu du Aitziber irigoras alkategaia. *Pertsona da arda-*

tza leloa erabiliko dute hauteskunde kanpainarako.

Berrizen, Orland Isoird da zerrendaburu, eta partaidetza, arlo sozioekonomikoa indartzea, eta herri biziago eta jasangarriagoa egitea dute oinarri.



Durangoko zerrenda osatuko duten EAJko kideak, aurkezpenean.



Berrizko hautagaien ateratako argazkia.

Gastañazatorre ez da PPren alkategaia izango

PP M.O.

Juan José Gastañazatorre ez da berriro Durangoko PPren alkategaia izango. Bere ordez, Francisco Garate izango da zerrendaburu. Gastañazatorre zerrendan egongo da, baina oraindik ez du argitu zein postutan. Zerrenda aurkezteko ekitaldi bat egingo dutela adierazi du hamarkadetan zinegotzi izandakoak.

Elorrioren ostera, hautagaitza errepikatu egingo du Carlos Garciak. “Nire helburu nagusia EH Bilduk ez gobernatzea izango da”, adierazi du PPren alkategaia. Zerrendan bigarren Ruben Velez Mendizabal joango dela aurreratu du, duela lau urteko hauteskundeetan Arabako Aralarren zerrendan joandakoa. Gainera, Dignidad y Justicia elkartearen Daniel Portero ere egongo da zerrendan. Ezker abertzalearen aurkako auzietan akusazio partikular gisa aurkeztu izan da elkartearen, eta baita *Egunkaria auzian* ere, besteak beste.

PSE-EEK aurkeztu ditu bere alkategaia

PSE-EE M.O. “Gure ideiegatik txikitu nahi gintuzten kasta horren parte gara”. Podemos alderdiak azken

hileabeteetan sozialisten kontra eginiko kritikei erantzunez hasi zuen alkategaien aurkezpena Carlos Totorika Batzar Nagu-



PSE-EEren alkategaia Gerediagako juntetxean aurkeztu zituzten.

sietarako hautagaiak. ETaren mehatxuarean egondako urteetan alderdiak eginiko lana baloratu zuen, eta, orain, “indar berbera pertsonen alde” jartzeko deia egin zuten alderdikideei.

“Gizartea hobetzeko lana egitea da sozialista izatea”, nabarmendu zuen Ermuko alkate ere badenak. Langabeziaren kontra egin gura dutela azaldu zuen, eta horretarako enplegu planak sustatuko dituztela. Bestalde, zerbitzu publikoen defentsa egin zuen.

Hauek dira PSE-EEren alkategaia: Pilar Ríos (Durango), Marian Muñoz (Iurreta), Alicia Hernández (Zornotza), Mari Carmen Muñoz (Abadiño), Koldo Méndez (Elorrio), Fran del Pino (Berriz), Javier Tera (Zaldirar) eta José Caro (Mallabia).

Gallastegi da Herriaren Eskubidearen alkategaia

HERRIAREN ESKUBIDEA M.O. “Elorrioren aldaketa eman eta alderdi bitasuna amaitzea” da Herriaren Eskubidea plataformaren nahia, Juan Pedro Gallastegi alkategaia aurkezpenean azaldu duenez. Herritarren partaidetza sustatzea izango da euren oinarri nagusietako bat.



Elorriko Herriaren Eskubidea plataformako kideak.

Iñaki Perurenak jaurtiko du txupinazoa, jai solidarioran

Zornotzako bost tabernaren artean antolatu dute

ZORNOTZA Joseba Derteano Gaur hasi eta domekara bitartean, jaialdi solidariora izango dute Zornotzan. Askotariko ekintzak prestatu dituzte Luxury, Hogan's, Saltxa, Iruña eta Amets tabernek. Elikagai iraunkorrek batzea da helburua. Ondoren, batutako janaria

Jai solidarioraren bitartez, elikagai iraunkorrek batu, eta Gurutze Gorriari ematea da asmoa



laz ere antolatu zituzten herri kirol probak.

Zaintza partekatua hizpide astelehenerako berbaldian

Zaintza partekatuaren "onurak" defendatuko dituzte

ZORNOTZA J.D. Datorren astelehenean, 19:00etan, *Emakumea eta zaintza partekatua* izeneko hitzaldia eskainiko dute Zelaieta zentroan. Bilboko La Terraza elkar-tereko Jorge Olivier izango da hiz-

laria, eta zaintza partekatuak dituen "onurak" defendatuko ditu.

"Gizonentzat eta seme-alabentzat ez ezik, emakumeentzat ere onuragarria da zaintza partekatua", Olivierren

Durungaldeko Gurutze Gorriari emango diote, beharrezko dauen herritarren artean banatu dezan.

Laguntzeko bi modu daude. Batetik, egunotan, tabernetan ipinita dauden bilguneetara eraman daiteke janaria; bestetik, jaialdiko lehiaketarako izen-ematea kilo bat janariaren truke egin ahalko da.

Gaur, 19:00etan, Iñaki Perurena harri-jasotzaile ohi ezagunak botako du jaiari hasiera emango dien txupinazioa, eta pregoia ere irakurriko du. Domekan, 12:00etan, Andra Mari plazan izango diren herri kirolerako sariak ere berak banatuko ditu.

Ekimenez betetako hiru egun izango dira (egitarau osoa: www.anboto.org webgunean). Gainera, herriko musika taldeek Topagune Music Festa txapelketan parte hartuko dute; sari banaketa zapatuan egingo dute, 23:00etan. Zapatu goizean, Korrika Solidarioa egingo dute Luxury eta Hogan's tabernen inguruan (4,5 km). Domeka goizean, herriko dendek merkatu bat jarriko dute toki berean.

arabera, eta ohiko ideia klasi-koagaz apurtu gura du: "Partekatzearen ideia hori da, nire ustez, emakumeari bere liberazio prozesuan konkistatzeko falta zaion azken muga". Olivierren ustez, seme-alaben zaintza partekatuaren bidez, "oreka" bilatzen dute.

Horrela, astelehenerako hitzaldira batez ere emakumeak joatea gustatuko litzaioke, gizonen artean askotan landu izan duten gaia delako.

Lantziegokoak bisitan datoz bihar, senidetza indartzeko

GARAI Markel Onaindia Garai eta Lantziego (Araba) senide dira 2013tik. Duela urte asko dantza taldeen eskutik jaiotako hartu-emana ofizial bihurtu zuten horrela. Garain antolatutako ekitaldi batean senidetza horren agiria sinatu zuten bi herrietako alkateek, eta egun osoko jaiari egin zuten. Iaz garaitarrak joan ziren Lantziegora, eta aurtengo edizioan berriro arabarrak datoz bisitan. Bihar izango da jaiari, 11:00etan hasita.

laz garaitarrak joan ziren Lantziegora, eta aurtengo edizioan arabarrak datoz berriro bisitan

Izan ere, 11:00 aldera ailegatuko dira lantziegarrak Garaira. Gontzal Sarrigoitia alkateak kontatu duenez, 30 bat etorriko dira, eta helduek ongietorria egingo diete hamaitakotako batez. Gero, trikipotea egingo dute eguerdira arte, eta pilotalekuko bazkariagaz jarraituko dute jaiari. 80 bat lagunek eman dute izena bazkarirako, Sarrigoitiaren arabera.

Bazkalostea musikagaz girtuko dute, Laja eta Narbaiza trikitilarien erromeriagaz, hain zuzen ere.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Debatea

Eskaizta eta gonbidapena eginda dago. Egin dezagun Durangoko alkatezarako dauden bost hautagaitzek eztabaida publiko bat. San Agustinen izan daiteke, adibidez, Durango Irratiaren mikrofonoen aurrean, eta herritarrentzat aretoa irekita dagoela.

Eztabaida beharrezkoa da, herritarrek beharra, gogoia eta eskubidea dutelako jakiteko nori emango dioten botoa. Hautagai eta talde guztiek omen daukagu ideologia jakina, programa zehatzak eta proposamen sorta. Hala, herritarrei hori azaltzeko eta euren iradokizunak jasotzeko modurik egokiena izan daiteke, komunikabideen bitartez eztabaida garatzeaz harago. Hala, botoa emateko intenziorik ez duenak ere, edo

Eztabaida beharrezkoa da, botoa nori emango dioten jakiteko eskubidea dutelako herritarrek

Urteotako kudeaketaz balantzea egiteko baino, etorkizunera begirako eztabaida nahi dugu

bati edo besteari emateko dudatan dagoen horrek, argitu dezake botoaren norabidea.

Eskaizta zintzoa da bost hautagaitzei egiten dieguna. Bost aukeri, bost hautagai, bost eskaizta. Aulkiren bat hutsik geratuko balitz, aulkia hutsik uzten duen horrek azaldu beharko luke zergatik ez duen eztabaidarik nahi. Guk bost indarrak interpelatuko ditugu gurekin eseri, eta eztabaidan parte hartzeko.

Era berean, zintzotasunez diogu, urteotako kudeaketaz balantzea egiteko baino gehiago, etorkizunera begira jartzeko eztabaida izatea nahi dugula. Zer egingo dugun azaltzeko aukera paregabea da.

Iritzia

Euskaraz Bizi Eguna 2015 (Otxandio)

Pasa dan asteburuko itzela izan da. Otxandioko Euskal Herriaren Euskarazek bertan parte hartu daben otzandiar eta euskaltzale guztiak zoriondu nahi dauz. Herriaren ekarpena ikusgarria izan da. Batzuk egitarauaren parte izan dira (Mirugain, Soñubil, txistulariak, dultzaineroak, Urduri dantza taldea, Batukotx, Vulkano, gaztetxea...), eta beste batzuk muntaiari, desmuntaiari eta

garbiketari lagundu dabe. Goraipatzekoa da holako jai bat auzolanean eraikitzea. Zorionak Otxandio!

Beste alde batetik, gogoratu hartu dogun konpromisoa: *euskararen alde egotetik euskararen alde egiteko* ordua da. Horretarako, nahi dauen otzandiar orontzat EHE eta Amarauneko ateak zabalik dagoz, ilusioz eta gogoz lan egiteko.

Mikel Ortiz de Zarate



astekaria@anboto.org

asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).



JATETXE GIDA

ÑAM!



LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.

www.lapikodurango.com

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara. Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea. 75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
www.ibarra-sagardotegi.com

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi pertsonarentzako menua zozkatuko dugu

Zelan deitzen da MIR azterketan bigarren egin duen durangar gaztea?

Zozketako irabazlea: **Thais Martin** zorionak!

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE ON!

> MUSIKA Itsaso Esteban
Gaztea maketa lehiaketan, Internet bidez entzuleen boto gehien jaso duen taldea izan da Stai Zitto. *Sei sustraiak* kanta aurkeztu zuen lehiaketara Mallabiko eta Ermuko musikariz osaturiko taldeak, eta 2.000 euroko saria jaso du. Saria taldean inbertituko dutela aurreratu dute taldekideek: material berria erosteko, esaterako. “Taldea ezagutarazteko aukera itzela da hau”, adierazi du maketa lehiaketako finalean aritzeko aukerari buruz Axier Uranga taldekideak. “Jendeari egiten gabiltzan lana helarazteko tresna inportantea da finala”.

‘Sei sustraiak’ kanta aurkeztu zuen Stai Zittok lehiaketara, eta 2.000 euroko saria jaso du

Apirilaren 30ean, hogeitun minutuko emanaldia eskainiko du taldeak Bilboko Kafe Antzokiko finalean, epaimahaiaren aurrean sari nagusia merezi dutela defendatzeko. Ekainean, Bilboko BBK Live jaialdian jotzea, 2.000 euroko dirusaria eta lau kanturen grabazioa dira lehiaketako sari nagusia.

“Esan digute publikoak zuzenekoan zelan erreakzionatzen duen oso kontuan hartzen duela epaimahaiak”, dio Urangak, “eta, finaleko talde bi bilbotarrak direnez, konpetentzia latza izango dugu, zentzu horretan ere: datorren eguenean, jendea gu animatzera joatea behar dugu”, azpimarratu du.

Apirilaren 30ean, 20 minutuko emanaldia eskainiko du Stai Zittok lehiaketako finalean

Epaimahaiak finalista izateko aukeratu dituen hiru kantetako bat Izaro Andres mallabitarren koruak dituen *Steps* izan da, Indigo&Izaro taldearen izenean aurkezturikoa. Iñigo Azpitarte musikari gipuzkoarraren proiektua da Indigo, eta hark aurkeztu du *Steps* lehiaketara.

Izaro Andresek aurreratu du apirilaren 30eko Bilboko finalean ezin izango duela parte hartu, “egun horretan Gasteizen aspaldi lotutako kontzertu inportante bat” daukalako, baina, *Steps* kanta eta bestelako fruituak eman dituen elkarlanean, Indigogaz kolaboratzen jarraitu gura duela adierazi du.

Stai Zitto taldeak jaso du Gaztea lehiaketako entzuleen saria

Finalean parte hartzeko aukera eta 2.000 euro irabazi dituzte taldekideek



Stai Zitto taldekoek eskualdeko jendeari dei egin diote apirilaren 30eko Bilboko emanaldian taldea animatzera joateko.



Izaro Andres mallabitarren koruak dauzkan Indigoren ‘Steps’ kanta ere aukeratu dute finalerako.

San Agustinen ‘Los insignificantes’ ikusteko sarrera guztiak salduta

Durangoko Atara Zarata antzerki taldeko gazteek sortutako antzezlan da

> ANTZERKIA

Atara Zarata antzerki taldearen eskutik, *Los insignificantes* antzezlan ikusteko beteko da Durangoko San Agustín kulturegunea gaur. Aspaldi saldu zituzten gaurko emanaldirako sarrera guztiak, eta 200dik gora ikusle espero dituzte. Markel

Ganboa durangarrak idatzi eta zuzenduriko obra da *Los insignificantes*, Durangoko hainbat antzerkigile gazte bildu dituena. “Barrenetik ateratako testua” da, Ganboaren berbetan. Kabaret batean kokaturiko istorioa da, eta gizartearen arauetatik aparte bizi diren bertako langi-

leak dira protagonistak. “Bakoi-tza bere erara, urratzaileak dira pertsonaia guztiak”, azaldu du Ganboak. “Zazpi bekatu kapitalak dira antzezlanaren ardatza, eta humanizatu egin gura izan ditugu. Kabaretiko unibertso paralelo horretatik kanpo daudela uste dutenak ere mundu horretan sartuz gero, behar bada, bertan geratuko lirakeela iradokitzen dugu”.

Aitor Etxarte, Julene Bernaola, Pello Velasco, Leire Barrenetxea, Ane Moreno, Iban Quesada eta Miren Uribelareak dihardute aktore lanetan.

Aurretik, *Desberdinak* eta *Nor nori nork* antzezlanak sortu ditu lantalde horrek: guztiak euskaraz. Oraingoan, baina, gaztelaniaz taularatuko dute euren istorioa. “Gaztelaniaz egitearena barne eztabaida baten emaitza izan da”, azaldu du Ganboak. “Aurretik egindakotik atera, eta hemendik aurrera leku berrietan eskaini ahal izateko helburuagaz egin dugu”.



Antzezlanaren sortu duen taldea, entsegu baten ostean.

Tres41 eta Alerta taldeen doinuak, Plateruenean

Durungaldeko taldeen kontzertua izango da bihar



‘Seguimos creyendo’ diskoa kaleratu berri du Alertak.

> MUSIKA

Durungaldeko metal eta hardcore doinuen gaua izango da Durangoko Platerueneko bihar. Eskualdeko musika taldeen parte hartzen hamarkadak daramatzaten musikariek osaturiko Alerta eta Tres41 taldeek joko dute bihar, 22:30etik aurrera, kafe antzokian.

Metal eta hardcore estiloko hamaika kantuko diskoa kaleratu berri du Durangoko, Zaldibarko eta Abadiñoiko musikariek osatzen duten Alerta taldeak, *Seguimos creyendo*

izenburukoa, eta kanta horiek zuzeneko indarragaz eskainiko dizkiete entzuleei.

Berrizko Tres41 taldeak, bestalde, iaz kaleratu zuen *Desde el país de los sordos* diskoko kantak joko ditu Plateruenean. Alerta taldeko lagunek azpimarratu dutenez, “zuzenean itzela da Tres 41 taldearen diskoa”.

6 euroko sarrera edukiko dute Platerueneko bihar kontzertuek. Zuzenekoan ostean, Berrizko Hardcore Krew DJak ariko dira gaua luzatu gura dutenentzat musika jartzen.



Taldeak lagunduta ariko da Belen Álvarez kanariarra, Berrizko kultur etxean, bihar.

Folk eta rock alternatiboko bost kontzertu izango dira Berrizen

Bihar hasiko da Tren Geltokiko Musikariak zikloa; maiatzean hiru zita dakartza

> MUSIKA Itsaso Esteban Apiril amaierarako eta maiatzerako bost kontzertu dakartza Berrizera Tren Geltokiko Musikariak zikloak; Rock eta folk alternatiboa eskaintzen dituzten taldeak ezagutzeko aukera, hain zuzen. Euskal Herriko Amorante, Kherau eta The Owl Project taldeekin batera, Kanarietako Bel Bee Bee eta Madrilgo The Big Bench taldeen proposamenak ezagutu ahal izango ditu

entzuleak. Kultur etxean izango dira zikloko lau emanaldi, eta 5 euro balioko dute sarrerek. Doako sarrera edukiko du, aldiz, maiatzaren 16an, Andikoako baselizan izango den emanaldiak. Kherau boskote bilbotarrak eskainiko du kontzertu hori.

19 urteko Belén Álvarez kanariarra da Bel Bee Bee, eta bandak lagunduta ariko da bihar, Berrizen: ondoan izango ditu Adex Alonso, teklatueta, eta

Gabi Gonzalez, baterian. Hirukote horrek zabalduko du Berrizko Tren Geltokiko Musikariak zikloa. Hala ere, eskaintza musikal bikoitza da asteburukoa, lehenago ere Berrizen jotakoa den Madrilgo The Big Bench-ek ere joko duelako, baina, oraingoan, talde formatuan. *Rest of the soul* diskoa aurkeztera dator taldea.

Maiatzaren 8an, oster, Amorante izeneko bakarkako

Apirilaren 25ean, 20:00etan
• **Bel Bee Bee**
Apirilaren 26an, 19:00etan
• **The Big Bench**
Maiatzaren 8an, 22:00etan
• **Amorante**
Maiatzaren 16an, 20:00etan
• **Kherau** * Andikoako baselizan
Maiatzaren 22an, 22:00etan
• **The Owl Project**

proiektua aurkeztuko du Iban Urizar elgoibartarrak Berrizko zikloan. *Aukhera* bigarren diskoko kantak joko ditu, 16an, Bilboko Kherau taldeak. Eta rock alternatiboa egiten duen The Owl Project Markiñako taldeak itxiko du, maiatzaren 22an, musika zikloa.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



#ZuZaraMorralla

Zaborra, hondakina: Erratzaren zain dauden kafea gozatzeko azukre poltsa huts mordoak. Mukizapi ugari alergikoaren etxean. Galtzerdi zikinen pilotak arroparen poltsatik at. Eskuko poltsaren barranean barreiatutako tabako xehearen arrastoak. Motxilan, berriz, bart jatea ahaztu zitzaizun platan biguna. Horra, *morralla*.

Jendilajea: Euskara erasotzen duten behe-mailako pertsonak. Ezjakintasuna ohore goren bailitza haiztzen dutenak. Gutxiago jakiteaz harrotzen direnak; ez jakitea existentziaren definizioa edo kultura altuko jende klasearen etiketa bailitza. Mendia zein De Andres abizen gabe ere, eurak bezain xenofobo direnak. Horra, *morralla*.

Bide malkartsua dugu aurretik; beraz, has gaitzen egutegian gertuen dugunetik. 30 egun besterik ez dira falta udal eta foru hauteskundeetarako. Badator, berriro, *morralla*.

Azken urteak euskarari dagozkien diru-poltsak hala nola banatzen eta edozelan justifikatzen kontzientzia lasaitu dutenek entzun gaitzate. Ilusioz eta lan egiteko gogoz agintaritzaren postuetara aurkezten direnek ere hausnar dezate. Herri honek gauza asko behar ditu bai; inolaz ez, *morralla*.

Jokatu erantzukizunez. Konplexuak hondakin bihurtu. Hizkuntz-politika erdeinuz gobernatzeari utzi. Froga ezazue, behingoz, euskahaldunak ez garela menpeko perpausa. Porlanezko lanak irudikatu eta egiten beste ordu pasa itzazue euskaraz bizi den herri bat eraikitzen. Egiten duguna gara. Ausardia erakutsi, euskara lehenetsi.

Iritsi da Break On Stage, kale kulturen zaleen zita



‘Parkour’ erakustaldi bat ere hartuko du Bilbao Arenak.

> JAIALDIA

Apirilaren 25ean, Break On Stage jaialdiak kale kulturaren askotariko adierazpenez beteko du Bilboko Bilbao Arena, 19:00etatik aurrera. Elorrioko Arriola antzokiak eta Logela Multimedia talde elorriarrak sortutako jaialdia da Break On Stage, eta, azken urteetan, Bilbon antolatuta izan dute jaialdia.

Aurten, besteak beste, iraupen laburreko hainbat dantzaren eta kirol adierazpideren hogeitamanaldi, eta zuzeneko musika eskainiko ditu jaialdiak. *Breakdance*, kale dantzen beste hainbat modalitate eta patinete,

bizikleta eta *parkour* erakustaldiak izango dira mundu osoko partaideen eskutik. Tartean izango dira otsailean Elorrioko Akadantz lehiaketa irabazi zuten Zaragozako Atu Ritmo Crew eta Irungo Golden Konexion ere.

Dantza emanaldi eta beste-lako erakustaldi horien ostean, 21:00etatik aurrera hip hop kontzertua eskainiko dute Shotta sevillarrak eta La Bandha del Patio taldeak Bilbo Arenan.

Estatu mailan, agertokian gartzen den kultura urbanoaren jaialdirik garrantzitsuen da Break On Stage, eta, azken urteetan, erreferente bilakatu da.

Sanagustinale, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Refugiada poética
Claire Ducreaux
Apirilaren 25ean
20:00etan

dantza garaikidea

San Agustin KULTUR GUNEA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

APIRILAK 24
18:00etan
ITSASOA, HITZEZ
ETA AHOTSEZ
ETENIK GAREKO IRAKURRALDIA

APIRILAK 25
13:00etan
KANTULAGUN
KALEZ-KALE

APIRILAK 25
22:30ean
ALERTA +
TRES41
MUSIKA KONZERTUA

JAIAK!

San Prudentzio

APIRILA | TRAÑA MATIENA-ABADIÑO

San PRUDENTZIO



2015

TRAÑA-MATIENA
Abadiño



Abadiño
Elizateko Udala

*Abadiñoko Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez*

www.abadiño.org

San PRUDENTZIO

SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARAUA

APIRILAK 25

Zapatua, Mozorro eta Kuadrillen Eguna

13:00 Txupinazoa txosnagunean, Abadiñoko baserritarren eta ekoizleen eskutik. Txosna Batzordeak antolatuta.

14:30 Herri bazkaria Traña plazan. Traña-Matienako Jai Batzordeak antolatuta.

17:00 Kuadrillen arteko jokoak Traña plazan. Txosna Batzordeak antolatuta.

19:00 Mozorro kalejira, **Fiebre del sábado noche** fanfarreak alaituta, Trañabarren kalean.

22:00 Mozorro txapelketaren sari banaketa Traña plazan.

23:00 Jaialdia Traña plazan:
· **Babel Covers**

APIRILAK 26

Domeka

09:30 **Bizkaikolore** txirrindulari lasterketa.

10:00 **Txanbolin** taldeko txistularien kalejira.

10:30 Umeentzako tailerrak eta ludoteka pilotalekuan.

11:00 **Bizkaikolore** txirrindulari lasterketa.

12:00 Kontzertua elizan, **Jaizale** Durangaldeko txistularien elkarteagaz eta **Done Zezili** abesbatzagaz. Jaizale eta Musikariak taldeek antolatuta.

12:30 Laubideta kalean, pintxo dastaketa: Senegaleko gastronomia. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatuta.

16:00 Tute txapelketa San Prudentzio kalean. Barnebidetza eta Tipi Tapak taberneak antolatuta.

16:00 Ipuin kontalaria eta **Resintonizadas** pailazoak pilotalekuan. 3-8 urte bitartekoentzat.

18:00 Txokolatada Traña plazan. Geu Be elkarteak antolatuta.

18:00 Gran Prix. 14 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

APIRILAK 27

Astelehena, Donien Atxa

18:00 Kuadrilla guztien bilera Traña zubian, Donien Atxa ekartzeko.

20:00 Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, **Brincadeira** fanfarrea, **Iluntze** taldearen dantza saioa eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.

22:30 Su artifizialak. Euria edo haizea bada, atzeratu egingo da.

APIRILAK 28

Martitzena, San Prudentzio, Umeen Eguna

11:00 Meza nagusia.

16:00 Ginkana Galizia plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

16:00 Umeentzako jolastokia Galizia plazan. Euria bada, pilotalekuan.

APIRILAK 30

Eguena

22:00 Bertso saioa Errota kultur etxean. Bertsolariak: **Sustrai Colina**, **Julio Soto**, **Beñat Ugartexea** eta **Maialen Lujanbio**. Gai-jartzailea: **Maite Berriozabal**. Gogaikarri bertso eskolak antolatuta. Gonbita beharko da sartzeko eta gonbitak eskura egongo dira apirilaren 20tik aurrera Errota kultur etxean (gehienez bi sarrera pertsonako).

23:00 Ska eta reggae jaialdia Traña plazan:
· **Siroko**
· **Soweto**
· **Dr. Ring Ding & Skavaganza**

MAIATZAK 1

Barikua, Gazte Eguna

Goizean **Geu Be** taldeak txahal bat erreko du Traña plazan. Euria bada, Merkatu plazan.

10:00 Nekazari azoka Traña plazan. Euria bada, Merkatu plazan.

11:30 Sagardoaren jaija Traña plazan. Euria bada, Merkatu plazan.

12:00 Herri kirolak Traña plazan. Euria bada, Merkatu plazan.

13:00 **Iluntze** taldearen dantza ekitaldia. Euria bada, pilotalekuan.

14:30 Txupinazoa eta herri bazkaria Traña plazan. Traña-Matienako gazteek antolatuta. Euria bada, eskolako aterpean.

17:00 San Prudentzio Pilota Txapelketako finala. Atxarte pilota eskolak antolatuta.

17:00 Gazte Eguneko jokoak Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

18:30 Elektrotxaranga kalejira. Txosna Batzordeak antolatuta.

20:00 II. Hanburgesa Jate Txapelketa. Vancouver tabernak antolatuta.

22:30 Su artifizialak. Euria edo haizea bada, atzeratu egingo da.

23:00 Kontzertua Traña plazan:
· **Las Tea Party**
· **Eromen**

MAIATZAK 2

Zapatua

10:00 Aretoko futbol partiduak Traña-Matienako kiroldegian. Traña-Matiena herri eskolako IGEk antolatuta.

10:00 Saskibalo partiduak Traña-Matienako kiroldegian. Traña-Matiena herri eskolako IGEk antolatuta.

12:00 Paella txapelketa Merkatu plazan.

16:00 Ugasixo txapelketa Merkatu plazan.

17:30 Tortilla txapelketa Merkatu plazan.

18:00 Frontenis txapelketako finala.

22:00 Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Iris**.

23:00 Kontzertua Traña plazan:
· **Sueder**
· **Gozategi**

MAIATZAK 3

Domeka

12:00 Xake erakusketa Trañabarren kalean. Abadiñoko xake taldeak antolatuta.

13:00 Perretxiko pintxoaren dastaketa Pinoko plazan. Geredixa mikologia elkarteak antolatuta.

14:00 Jubilatuen bazkaria. Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta.

16:00 Mus txapelketa pilotalekuan. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatuta.

17:00 Jaialdia Traña plazan: **Los Locos del Swing**.

17:30 **"Txarlestrop"** (Zirika Zirkus) familia ikuskizuna Errota kultur etxearen ondoan. Euria bada, eskolako aterpean.

18:00 Futbito txapelketako finala Traña-Matienako kiroldegian.

20:00 Donien Atxa kentzea, **Ustekabe** txarangak alaituta.

Errota kultur etxean:
Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra bitartean, kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.

Pinilla
HARATEGIA-URDAITEGIA

EUSKO LABEL
Eusko Labela
Eusko Labela

Denda
TIENDA ESPECIALIZADA

"2000tik Eusko Labelarekin"

Tel.: 946 815 127 · Trañabarren, 29 · MATIENA - ABADIÑO

ESTANKO ALBERDI

Zubiarte, 7
Tel.: 946 814 033
MATIENA - ABADIÑO

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Astelehen arratsaldean batuko dira kuadrilla guztiak Trañako zubian. Ignacio Conde Martin



Apirilaren 25etik maiatzaren 3ra ospatuko dituzte jaiak Traña-Matienan. I.C.M.

Txosnaguneko txupinazoagaz abiatuko dituzte San Prudentzio jaiak, bihar

Abadiñoako baserritarrek eta ekoizleek jaurtiko dute txosnaguneko txupinazoa, bihar, 13:00etan

> JAI GIROA Jone Guenetxea Mozorro eta Kuadrillen Egunagaz ekingo diete Traña-Matienan San Prudentzio jaiak. 13:00etan, txosnaguneko txupinazoa jaurtiko dute Abadiñoako baserritarrek eta ekoizleek, jaiak hasiera emateko. Herri bazkariagaz, kuadrillen arteko jokoen, mozorro txapelketagaz eta erromeriagaz biribilduko dute eguna.

Jaiak hasiera ofiziala, berriaz, astelehenean izango da. 18:00etan, kuadrilla guztiak Trañako zubian elkartuko dira

Jaien hasiera ofiziala astelehenean izango da, eta kuadrillak Trañako zubian elkartuko dira

Donien Atxa ekartzeko. 20:00etarako Donien Atxa jasotzeko hitzordua jarrita dago. Ondoren, Iluntze dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Dantzen ondoren, tradizio bihurtu den saria banatuko dute. Urteko lagun ospetsuak esker ona jasoko du auzokideen aurrean. Urtero moduan, sorpresa izango da aurten sarituko duten matienarra nor izango den.

Berrikuntza ugari
Aurtengo jaiak nobedadez beteta datoz. Musika arloan, esate

Maiatzaren leian, Geu Bek txahala erreko du, eta nekazaritza azoka ikusi ahalko da

baterako, ska eta reggae jaialdia da berrikuntza horietako bat. Era berean, maiatzaren 1erako, auzoko gazteek lehenengoz antolatuko dute Gazte Eguna.

Azoka eta herri kirolak
Jaietan eguerdiko giroagaz gozatu gura dutenek ere izango dute aukera Traña-Matienako jaietan. Izan ere, maiatzaren leian, Geu Be taldeak txahal bat erreko du Traña Plazan. Bitartean, nekazari azokan herriko baserrietako produktuez gozatzeko aukera izango da. Eurria egiten badu, azoka Merkatu plazara lekualdatuko dutela jakinarazi dute. Era berean, giroa indartzeko, sagardo jaiak prestatuko dute. Goiza amaitzeko, berriaz, herri kirolen erakustaldia eskainiko dute. Eguerdian ere Iluntze dantza taldeak erakustaldia eskainiko du.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6
Tel.: 946 818 792
48200 Abadiño

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren, 13 - 4. blokea, behe, eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 944 657 132
Mug.: 686 906 374

ELECTRICIDAD ANBOTO S.L.

AUTOMATISMOAK-HARILKATZEAK
ELEKTRIZITATE-INSTALAZIO INDUSTRIALAK
AUTOMOZIOARAKO ETA INDUSTRIA-ELEKTRONIKARAKO KABLEATZEAK

Trañapadura industriagunea,
C pabiloia, 5. lokala
48220 MATIENA - ABADIÑO (Bizkaia)

Tel.: 946 812 433
Faxa: 946 810 996
www.electricidadanboto.com

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu abadiñar guztioi!

EROSKI

TERRAZAK ETA LORATEGIAK MOMENTU PAREGABEAK

EROSKI
Abadiño zurekin

Jairako ska eta reggae doinu landuak eskainiko dituzte, datorren egunean

Apirilaren 30ean, 23:00etan hasiko dira Dr. Ring Ding, Siroko eta Soweto ska-reggae taldeen kontzertuak

> MUSIKA Itsaso Esteban Euskal Herriko, Kataluniako eta Alemaniako hiru talde gonbidatu dituzte Traña-Matienako San Prudentzio jaietako ska-reggae jaialdira. Apirilaren 30ean, txosnaguneko agertokitik ariko dira Siroko, Soweto eta Dr. Ring Ding Skavaganza taldeak. Jairako ezin aproposagoak diren doinuak eskainiko dituzte Abadiñon, Traña-Plazan.

Siroko Gasteizko (Araba) zazpikote bat da, eta Jamaikako ska-reggae doinuen estilokoak jotzen ditu haize-instrumentue-

'Apetece, que no es poco' lehenengo diskoko kantak joko ditu Gasteizko Siroko zazpikoteak

kin. Potato, Kannabis eta Korroskada taldeetan ibilbide luzea eginikoak dira Sirokoko musikariak. Taldekide gehienak Potato taldean ibilitakoak dira, eta, hain zuzen, talde horretan

ezagutu zuten elkar. Sirokoren kontzertuak ska eta reggae jaiak direla azpimarratu dute antolatzaileek. Musika dantzagarri eta dibertigarria, baina, aldi berean, aldarrikatzailea ere bai.

Ska jamaikarreko kanten bertsioak jotzen hasi zen taldea, eta The Skatalites taldea du erreferente nagusizat. Horretaz gainera, taldekideek azaldu dutenez, "inprobisazioa inportantea da" euren kontzertuetan. Jazzagaz ere hartu-eman dute, "kontzertu bakoitza zerbait bizia eta berezia izatea lortu guran

betiere". Taldekideen berbetan, musika bihotzagaz entzuten duten guztiei zuzenduriko diskoa da *Apetece, que no es poco*. Talde gasteiztarraren lehenengo grabazio lana da.

Entzuleak 1960ko hamarkadako Jamaikako girora eramango ditu Soweto taldeak



Hamabost kantuko diskoa kaleratu berri du Dr. Ring Ding taldeak.

Mikel Villanueva eta Unai Sanchez | Jai Batzordeko kideak |

"Ska munduan entzute handikoak dira Matienan joko duten taldeak"

Beti amestu duten kartela osatu ahal izan dute Matienako ska jaialdirako

Jon 'Peli' Larruskainen, Mikel Villanuevaren eta Unai Sanchezen ekimenez antolatuko dute apirilaren 30eko jaialdia.

Noiz hasi zineten jaialdi honen ingurukoak antolatzen?

Mikel Villanueva: Beti eduki dugun ideia eta ametsa izan da, baina, azkenean, aurten ikusi

dugu aukera. Otsail inguruan hasi ginen lanean, Jai Batzordearen batzarrak hasi zirenean. Lehenengo pausoa batzordean gure ideia proposatzea izan zen. Hurrengo, aurrekontua eta taldeen inguruko informazioa batzordera eramatea, bertako jendeak ezagutu zitzan. Gutxinaka joan gara jendea konbentzitzen.

Zer dauka berezia datorren eguneko jaialdiak?

M.V.: Ska-reggae estiloko entzute handiko taldeak aire zabalean eta doan ikusteko aukera izango dela jendearentzat.

Unai Sanchez: Inportantea da, nire ustez, hori. Izan ere, horrelako kontzertuak ikusteko aukera gutxi dugu hemen

inguruan. Izatekotan, areto itxi batean, eta 20 euro inguru ordainduta izaten dira.

Zergatik aukeratu dituzue hiru talde hauek?

M.V.: Gure ideia izan da punta-puntako nazioarteko talde bat ekartzea, eta Euskal Herriko eta inguruko talderen bat gonbidatzea.

Zer esan daiteke Dr. Ring Ding kartelburuari buruz?

M.V.: Ska munduko kantari oso ezaguna da Dr. Ring Ding, erreferentziala. Gainera, 2012. urte-

tik ez du Estatuan jo, eta jende asko dago irrikaz.

Eta Soweto eta Siroko taldeek zer berezitasun dute?

M.V.: Guk oso gustuko dugu Sowetok egiten duen ska purua, tradizionala. Eta Siroko taldeko musikari gasteiztarrak ere oso ezagunak dira skaren munduan: asko mugitu izan dira, esaterako, Potato taldeagaz, eta mugitzen jarraitzen dute.

Jende asko espero duzue?

U.S.: Hori espero dugu, noski. Badakigu Euskal Herriko txoko

TOÑO ALBAÑILERÍA

Igeltserotza orokorra | Etxebizitzen zaharberritzeak
Merkataritza-lokalak | Baserriak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Tel.: 686 420 383 / 946 202 565

Gure Kide
Albaitaritza klinika

Murueta auzoa, 1
48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 946 201 621
Larrialdia: 655 881 422
cvgurekide@gmail.com
www.gurekide.es

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia
Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak

ERLIA CONTENEDORES

- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu
- Geure hondakindegia dugu
- Harrobietako materialen banaketa
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa

www.contenedoreserlia.com
Tel.: 646 247 350 · 946 814 107 Faxa: 946 810 204

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO

MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA

Salmenta Konponketa Boutiquea

Tel./Faxa: 946 814 068
www.motostabira.es

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO



g Ding Skavaganza talde alemaniarak.

Soweto taldea, oster, 1998. urtean sortu zen, Bartzelonako (Herrialde Katalanak) Gracia auzoan, eta egiten duen musikak entzulea 1960ko hamarkadako Jamaikako girora eramateko gaitasuna du. Sowetoko musikariek ere leku eta sasoi hartako The Skatalites taldea dute kuttunen. Zaletasun hori partekatzen dute, besteak beste, Siroko taldekoekin. Zortzikotea da Soweto, eta *South West Town* da kaleratu duen azken lana; 2011. urtean argitaratua. Aurten du hirugarren diskoa kaleratzeko asmoa.

Dr. Ring Ding alemaniarra, bestalde, Europako ska eszenako talderik entzutetsuenetarikoa bat da. All Stars taldean ibilitako Dr. Ring Ding, Skavaganza taldeko lagunekin etorriko da Traña-Matienara. *Bingi-Bongo* izeneko bigarren diskoa ka-

leratu berri du Dr. Ring Ding Skavaganza taldeak martxoan. Hamabost kantuko diskoa da, eta ska, reggaea eta jazz ukituak uztartzen ditu.

Ska, reggaea eta jazz ukituak uztartzen ditu Dr. Ring Ding kantariaren taldeak

Esaterako, Ukrainako, Euskal Herriko, Frantziako, AEBetako, Kataluniako eta Alemaniako musikariak daude Skavaganzan, Dr. Ring Ding abeslariari laguntzen. Ingelesezt kantatzen dute, skari, alkoholari eta jaiari buruzko istorioak kontatzeko.



1998an, Bartzelonako Gracia auzoan sortu zuten Soweto taldea.



Potato taldean ibilitako musikariek sorturiko proiektua da Siroko.

askotako zein hemendik kanpoko skazaleak etorriko direla. Nahi genuke primeran joatea, eta datorren urtean jaialdiaren bigarren edizioa antolatzea.

Gaztetatik parte hartu izan duzue Jai Batzordean, baina denbora batez parte hartu barik egon zarete, ezta?

M.V.: Bai, funtzionatzeko moduagaz ez geundelako konforme utzi genion parte hartzeari.

U.S.: 15 urte ingurugaz hasi nintzen Jai Batzordean, baina 20 urteagaz edo utzi egin nuen, nahikoa nazkatuta. Lehen herriko jende gehiagok parte hartzen zuen, indar asko gehiago zeukan Jai Batzordeak.

1980ko hamarkadatik, kontzertu bereziak hartu izan ditu Traña plazak jaietan...

U.S.: Kontzertuetarako plaza berezia izan da azken hamarkadetan Traña-Matienako sanprudentzioetako, bai. Denetarik entzun ahal izan da hemen; punta-puntako taldeek jo dute.

M.V.: Azpimarratzekoak dira, adibidez, RIP, Eskorbuto eta Oi Se Arma taldeen kontzertuak.

Zein kontzertu gogoratzen duzue bereziki?

M.V.: 1980ko hamarkadako Ingalaterrako punk-rock taldea da GBH, eta duela sei urte eskaini zuen kontzertuaren oroimen oso berezia daukat, esaterako. .



Skazale amorratuak dira Unai Sanchez eta Mikel Villanueva.

LATEX
ERROTULUAK
ROTU-NET
www.rotunet.net

TIPI-TAPAK
TABERNA
San Prudentzio jaietako txosnen aurrean gaude!

Garage Miguel
GARBIKETA
TAPIZERIAK
MEKANIKA
GURPILAK
Arzubia, 10A - 1. pabaloia - Tel.: 946 819 161 - Faxa: 946 218 264

ITURRIAGA
SUKALDEAK
Gremioen koordinaketa
Trañetxoste, 2
48220 | Abadiño
Tel. | Faxa: 946 550 722
Mob.: 605 740 176
E-maila: gorkaiturriaga@yahoo.es

Jaietan, ondo ibili!



Joan zen asteko barikuan, Errota kultur etxean batzartu ziren Gazte Eguneko prestaketa lanak egiteko.

> GAZTE EGUNA J. Derteano

Aurtengo San Prudentzio jaietako nobedade nagusienetakoa maiatzaren 1eko Gazte Eguna izango da. Herriko gazteen ekimenez, lehenengoz antolatuko dute. Ekintza konkretuetatik harago, egun hori herriko kuadrillen arteko hartu-emanen sustatzeko abiapuntu izan dadila gura dute.

Izan ere, Traña-Matienako gazteak “banatuta” daudela uste du Alex Cuesta Gazte Egunaren sustatzaileetako batek: “Kuadrilla bakoitza bere lokalean sartuta egoten da, eta ez dago hartu-emanik gure artean”. Urte hasieran gabezia horri buruz hausnartzen ibili zen bere lagun batek, eta berbetatik ekintzetara pasatzea erabaki zuten: “Hartu-emanak sendotzeko bultzada baten beharra zegoela ikusi genuen, eta hasierako pauso hori ematea falta zen”. Otsaila zen, eta, “jaiak nahiko gertu zuden, Gazte Eguna antolatzeko ideia etorri zitzaigun burura”.

Gazte Eguna, herriko kuadrillen arteko hartu-emanen sendotzeko abiapuntua

Herriko gazteek Gazte Eguna antolatu dute lehenengoz, elkarlanean, maiatzaren 1erako

Hurrengo aste bietan herriko hemezortzi kuadrillagaz batu ziren, eta “gehienek begi onez ikusi zuten ideia”. Otsailean bertan antolatu zuten lehenengo batzar komuna, Errota kultur etxean. Hasierako lotsak alboratuta, “jendea animatzen joan zen, eta hainbat ideia sortu ziren”. Harrezkero astero batu dira.

Batzarrak batez ere Gazte Eguna antolatzera bideratu dituzte, baina sustatzaileek epe luze batera sinergia bat sortu nahiko lukete. Cuestaren esanetan, “Gazte Egunak harrera ona izaten badu, gazteen batzorde bat eratzea da helburua, aisialdiari begirako ekintza bateratuak sortzeko”, Bide horretan,

Herri bazkarirako 200 txartelak banatuta dituzte; ondoren, jokoak egongo dira

“Hartu-emanak sendotzeko bultzada baten beharra zegoela ikusi genuen”

Zornotzako Gazteak bilgunea dute erreferenteetako bat.

Bazkaria eta jokoak

Gazte Eguna herriko gazte batek piztutako txupinazoagaz hasiko dute. Pregoia ere irakurriko du gazteak. Ondoren, ekintza nagusi bi izango dira: eguerdian, herri bazkaria, eta, 17:00etatik aurrera, gazteen arteko jokoak. Biak Traña plazan izango dira. Bazkarirako 200 txartelak banatuta dituzte dagoeneko. Bazkalostean hainbat jokotan (sokatira eta zaku lasterketa, adibidez) parte hartzeko aukera egongo da: “Taldeak ezingo dira osatu kuadrilla bereko lagunekin. Nahastean osatuko ditugu,

batak besteagaz konfiantza hartu, eta hartu-emanak estutzeko modu egokia delako. Horrela erabaki dugu batzarretan”.

Euria ari badu, eskolako aterpera tokialdatuko dituzte ekintza biak.

Ondoren, 18:30ean, elektrotzaranga batek gazteak zehar ibiliko dira denak elkarrekin giroa alaitzen: “Elektrotzaranga ez dugu guk antolatu, baina, txosnekin eta udalagaz berba eginda, egun honetan jartzea lortu dugu”.

Lehenengo Gazte Eguna musikagaz agurtuko dute; 23:00etan, Las Tea Party eta Eromen taldeek zuzenekoak eskainiko dituzte Traña plazan.



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEN ALTZARIAK

Urbite industrialdea, 6
3. lokala - 48220 Abadiño
(Eroski saltoki-gunearen parean)
Tel.: 946 202 656
abadiano@arriandi.com



SANTOS banatzaile ofiziala

APAINGARRIA
ETA INDUSTRIALA



FATXADETARAKO PROIEKTU BEREZIAK
ERA GUZTIETAKO BARNE ETA KANPOKO DEKORAZIOAK

Sagasta auzoa - Anbe Goikoa - 48220 ABADIÑO - Bizkaia
Tel.: 629 143 944

Gaztetxoentzat egun osoko egitaraua prestatu dute domeka honetarako

Goizean, tailerrak eta ludoteka egongo dira pilotalekuan; arratsaldean, Grand Prix jokoa gaztetxoentzat



Umeentzako antzerkia, 2011ko San Prudentzio jaietan.

> JAI GIROA Amaia Ugalde Orain arte, sanprudentzioetan ume eta gaztetxoentzat ekitaldi gutxi antolatu direla-eta, hutsune hori betetzeko ahalegina egin du aurten Jai Batzordeak. Laura Sanchez eta Vega Asensio Traña-Matienako gurasoek hartu dute horretarako ardura; kezka horrek mugituta, Jai Batzordean parte hartzen hasi ziren,

eta, batean eta bestean galdetu eta gero, azkenerako egitarau mardula osatu dute domeka honetarako, apirilaren 26rako.

Domekan, pilotalekuan izango dira jarduera gehienak. 10:30etik 13:00etara tailerrak egingo dituzte 3 eta 12 urte arteko umeentzat. Txikienentzako ludoteka ere egongo da, eta txutxu trenaren ere edukiko dute.

Bazkalostean, 16:00ak aldera, ipuin kontaketa berezia izango dute, ahozko jarduna, marrazkia eta musika nahastuta. Vega Asensio ilustratzaileak ipuina kontatu eta marraztuko du, eta Idurre Ormaetxea biola-jotzailea izango du alboan, istorioari doinua jartzen. Ondoren, *Resintonizadas* taldeko pailazoek emanaldia eskainiko dute, eta

Ume eta gaztetxoei zuzendutako ekintzetan hutsunea egon dela-eta, hori betetzea da helburua

Grand Prix proba jokoa egongo da 14-16 urtekoentzat; izena eman behar da kultur etxean

18:00 alderako txokolatada prestatuko du Geu Be elkarteak. San Prudentzio jaietan asko parte hartzen du Geu Bek urtero, eta maiatzaren 1ean ere sukaldari ibiliko dira elkarteko kideak, Traña plazan, txahala erretzen. Txokolatea hartu eta gero, joko bat egingo dute globoekin.

Iluntzean, proba jokoa Grand Prix proba jokoa ere antolatu dute domekarako. 14 eta

16 urte arteko gazteei begirako lehiaketa izango da, eta kaletik zehar ibili beharko dira, hainbat erronkari aurre egiten. Lau pertsonako taldeetan jokatu dute Grand Prix proba, eta, lehiaketan parte hartzeko, izena eman behar da aurretik, Errota kultur etxean. Parte-hartzaileentzako sariak egongo direla aurreratu dute.

Hilaren 28a, Umeen Eguna Domekako egitaraua umeentzako eskaintza betetzera dator: "Asteburu biko jaiak izanda, eurei begirako gauza gutxi antolatzen direla ikusi dugu", azaldu du Vega Asensio antolatzaileak. Iaz, esaterako, txosnaguneak jokoak antolatu zituen, baina, bestela, ekitaldi gutxi izaten direla esan du Asensioek. Apirilaren 28an Umeen Eguna izaten da, eta, horko ekitaldiez gainera, beste zer edo zer antolatzeko premia ikusi dute.

Apirilaren 28an, arratsaldean egongo dira ume eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak. 16:00etan hasita, ginkana egingo dute Galizia plazan 5 urtetik gorako umeek; bizikleta gainean ibilbide bat egin beharko dute parte-hartzaileek. Plaza horretan bertan, umeentzako puzgariak egongo dira arratsalde horretan. Eurria bada, bizikleta ginkana eskolako aterpera lekualdatuko dute, eta umeentzako jolastokia, berriz, pilotalekura.



Abadiñon, aurtengo otsailean egin duten zumba maratoko une bat.

Durangaldeko berbalagunen zumba maratonia, bihar

Txosnagunean, 13:00etan ipini dute hitzordua, monitore bigaz dantza egiteko

> MUSIKA A.U.

Jaia eta euskara uztartzeko helburuagaz, zumba maratonia antolatu du Durangaldeko Berbalagun egitasmoak San Prudentzio jaietarako. Arituak diren bi monitoregaz jardungo dute dantza mota berezi hau praktikatzen, eta zapatu eguerdirako jarri dute hitzordua: 13:00etan, txosnagunean.

Colina, Soto, Ugartetxea eta Lujanbio bertsolarien saioa apirilaren 30ean izango da

Eguenean, bertso saioa.

Bestalde, jaietako bertso saioa apirilaren 30ean izango da. Sus-trai Colina, Julio Soto, Beñat Ugartetxea eta Maialen Lujanbio bertsolariak etorriko dira, eta Maite Berriozabal ibiliko da gai-jartzaile. Errota kultur etxean izango da saioa, 22:00etan, eta Errotan bertan eskatu behar dira gonbidapenak.

VANCOUVER

 Bar - Cafeteria

Askotariko pintxoetan espezializatuak
Rabak asteburuetan eta jaiegunetan

Trañabarren Etorbidea, 9 • MATIENA
Tel. 94 681 70 39

Cafetería Oxford

 MATIENA-ABADIÑO

ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)

Urtiaga

 Ofertak dendan

Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI,
BEROGAILU, AZULEJU,
ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA
ETA HORMIGOI ERAKUSKETA,
SALMENTA ETA EZARPENAK

Solaguren kalea, 3
Tel.: 946 814 474 · Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga@urtiaga.info
MATIENA-ABADIÑO

Lorea Argarate | DJa, Las Tea Party taldeko kidea | Bilbo, 1990

“Badirudi dantza egiteko nahia indartu dela, eta aurreiritzi eta beldurrak baztertu direla”

Maiatzaren 1ean, Traña plazan musika elektronikoa ipiniko dute Las Tea Partykoek; musika elektronikoaren zabalpenaren isla dira

> MUSIKA Markel Onaindia
 Duela hamar urte pentsaezina zen plazetan eta txosnaguneetan musika elektronikoa ipintzea. Bada, azken boladan gertatzen dabil, gauzak aldatzen dabilzan seinale. Las Tea Party bikotea osatzen duten Eva Gutierrez eta Lorea Argarate DJak dira horren adibide, eta, gazteak izan arren, arrakastaren olatuan daude. Traña-Matienako jaietan, maiatzaren 1ean, dantzan jarri gura dituzte gazteak. Lorea Argarategen erantzun die galderei posta elektronikoz.

Zelan otu zitzaizuen Las Tea Party sortzea?

Betidanik ezagutzen genuen elkar, eta biok ibili izan gara musika munduan murgilduta betidanik. Evari diskoak jartzeko jakin-mina piztu zitzaion, eta gure auzoko DJ He-gaz batera ikasten hasi zen. Probatu ahala, niri komentatu zidan, gustatuko zitzaidalakoan. Eta horrela hasi zen abentura.

Eta zelakoa izan zen hasiera?

Bilboko taberna txikietan hasi ginen. Lagunak etortzen zirenean gu ikustera, eta horrela urte bi inguru pasa genituen, ikasten genbiltzan bitartean. Lagunen aurrean praktikatzeko genuen. Ez generaman orain dugun ikuskizun erritmoa, baina ordu-rako itzela zen tabernetan musika jarri ahal izatea.

Tabernetatik aretoetara jauzi egitea lortu zenuten gero...

Taberna txikietan ibili ondoren, Sonora aretoan saio bat egiteko aukera eman ziguten. Oso ondo pasa genuen, eta jendeak ere bai; beraz, berriz joateko esan ziguten. Bi urtez egon ginen horrela,



Lorea Argarate, ezkerrean, Eva Gutierrezekin batera.

bertako egoiliar izatera heldu arte. Gaur egun, Fever aretoan gabilta, eta nazioarteko artistekin taula partekatze aukera eduki dugu.

Zenbat ordu sartzen duzue praktikatzeko?

Entseatzen ez dugu denbora asko pasatzen, baina musika entzuten bai; musika asko entzuten dugu. Lokaltxo bat daukagu gure *katxarritoez* beteta, eta bertara joaten gara. Zuzenekoetako saioak praktikatzeko eta musika ekoizten ibiltzen gara. Azkenaldian, ordu asko gabilta sartzen estudioan, kantuak egiteko.

Azken finean, jendeak dantza egitea da zuen asmoa, ezta?

Gure helburua jendeak gau eder bat pasatzea eta jendearen oroimenean geratzea da. Jendeak

dantza egiteko gogo handia daukala konturatu ginen, eta joan zen udan ere hori ikusi genuen. Edozein herritako plazek festibalen itxura hartzen dute.

Dantzas aparte, zertarako bali du musika elektronikoa? Etxeko lanetarako? Ikasteko?

Musika elektronikoa oso zabala da, ez da *pum pum pum* bakarrik. Hemen askok duen kontzeptu erratu bat da hori. Beste edozein estilo bezain irekia da; abiadura desberdina duten estiloak daude musika elektronikoan: doinu leun batetik oso azkar doazen bonboetara. Eta, noski, edozertarako izan daiteke, baita ikasteko ere.

Aretoez gainera, plazetan eta txosnaguneetan ibili izan zarete. Hori pentsaezina zen orain

gutxi. Zer aldatu da?

Zer aldatu da? Norbaitek erantzun diezagula! [Barrez]. Badirudi dantza egiteko nahia

“*Musika elektronikoa oso zabala da, ez da ‘pum pum pum’ bakarrik*”

indartu dela, eta aurreiritzi edo beldurrak baztertu direla. Hemen, elektronika aparteko multzo batean sartu izan da, eta, orain, gutxinaka, badirudi jendeak gehiago estimatzen duela.

Zer sentitzen duzue gazteak zuekin saltoka ikustean?

Deskribatzeko sentsazio zaila da, baina ikaragarria dela esango nuke. Saioan aurrera zoazela jendearen erantzuna hobetzen doala ikustean, kanta batzuekin eskuak gora igo eta irribarre egiten dutenean... Puf! Oilo ipurdia jartzen zaigu. Jendeagaz hurreko kontaktu hori izatea da gehien gustatzen zaiguna, jendeagaz batera jaia osatzea.

Zer espero duzue Matienako emanaldiaz? Zelako animoz zatozte?

Matienara joateko gogo piloa daukagu. Izan ere, beti joan izan gara bertako jaiez gozatzera. Aurten musika jartzera joango gara, beraz, jai polit bat osatzeko gogo izugarria daukagu. Aurreko egunean deskantsatu dezala jendeak, Las Tea Partyk egurra emango du eta!

neumáticos ETXEBARRIA

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Freno-pastillak - Amortiguadoreak

MICHELIN BFGoodrich BRIDGESTONE Firestone

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
 (Hiper Erosklaren ondoan)
 Tel.: 94 623 25 20 - Fax: 94 620 36 22
www.neumaticosetxebarría.com

0!

RENAULT OCASIÓN ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

! **RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**
TCe 115ZP Urtea: 2013
10.900€*



! **PREZIOA
EKIPAMENDUA
BERMEA
HAINBAT AUKERA**

RENAULT OCASIÓN

GAURSA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

*Eskaintza 2015/04/30n bukatuko da edo izakinak agortzen direnean Renault Gaurisa (azken 4 unitateak) RCI Banque Sucursal en España-rekin gutxienez 4.000 € finantzatuta 24 hilabete baino gutxiagoko bigarren eskuko ibilgailuentzako deskontu-promozioren bidez. RECSAK eta Gaurisa eskaintako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Kontsultatu baldintzak kontzesionarioan. Irudi-ko modeloa: Renault Mégane Berlina GT Style Energy TCe 85kW (115ZP) S&S pintura metalizatu bereziarekin.

Renault gomendatzen du 



PORROTA, ATE-JOKA

Bizitza pertsonalean zein jarduera akademikoan arrakasta lortzen duen ikasle baten eta etengabe, luzaroan, emaitza txarrak lortu eta porrotaren sentimendu jarraitukoa izateaz gain hobera biderik aurkitzen ez duen ikaslearen arteko aldea ez datza gaitasun intelektualetan, bakoitzak bereak dituen emozioak kontrolatzeko eskura duen gaitasunean baizik.

Erantzukizunei aurre egiteko jarrera posible bi daude: baikorra eta ezezkorra.

Jarrera baikorra, ahaleginaren eredu da, lanerako grina, helburuak lortzeko gogo, neurri, bide eta epe egokiak jartzen dakiana, nork bere erabaki eta bizitza kontrolatzen direnaren sentsazioa ematen duena, egoera gorabeheratsuak azaldu arren ezarritako helburuak lortuko direnaren ziurtasuna ematen duen jarrera.

Jarrera ezezkorrak eragozpenei edota zailtasunei aurre egiteko ordua heltzerakoan inolako ahaleginik egin gabe etsipenari amore ematea dakar, lortu nahi den helburua eskuratzeko benetan bakoitzak gai den energia guztia erabiliz ekin beharrean uko egitea dakar; arrakasta eragotzita dagoela pentsatuz porrota aurreikustea sustatzen du, eta ondorioz, etengabeko desatsegintasuna izaten da nagusi, erruduntasun eta munduarekiko haserre sentimendu maila handiak barneratzeaz gain norberengan erabateko konfiantzarik eza nabarmena izatea ekarrit.

Jarrera ezezkorra azaltzen duenak, bestalde, dagokion adinaren arabera dituen erantzukizunei aurre egitean motibaziorik eza ikaragarria azaltzen du, eta bestalde, ikasleen artean bereziki, egin ahalak egin arren, emaitza onak lortzea euren esku baino euren egoera eta etengabeko porrotaren errudun jotzen dituztenen esku dagoenaren sinesmena izatea dakar. Norbere zereginen erantzukizuna inori egoztega gauza merkea bezain arduragabea izate

ten da. Aipatutako emozio egoera horretan diren pertsonak ez dakite erabakirik hartzen, frustrazio maila handiak dituzte eta, gainera, euren buruarekiko iritzia porrot egin duen pertsonarena izaten da, bestalde ezertan lagungarri ez dena.

Gogoan daukat, orain dela gutxi gorago aipatutako egoera guztiak azaltzen zituen 15 urteko Zornotzako Ikastetxe entzutetsu bateko neska baten ama, (Mara deituko diogu), kinka larrian, erabat artega, guttiz arduratuta eta egonezin garbian etorri zitzaigun eguna.

Mara amaren egonezina, bere alabak ikasketetan zeukan egoera ikusita, ez zen gutxiagorako. Alabak etengabe ikasketetan lortzen zituen emaitza kaskarrei, ikasketenganako zeukan jarrera ezezkor nabaria eta emozioak kudeatzeko zeukan ezintasuna gehituz gero, Marak arazoari erantzun egokirik emateko baliabiderik ez zuela ikustean....arazoak, berezitasunez amari, gainezka egin zien, eta ondorioz, berehalako irtenbidea aurkitze asmoz eta premiazko laguntza eske PRAKAGORRIra etorri zitzaizkigun.

Esan beharrik ez dago aipatu direnak bezalako luzaroan mamitutako egoera larriari irtenbide egokirik eman nahi izatekotan behintzat, jarduera luze eta jarraitukorik behar izateaz gain, metodologia egoki eta konpromiso maila jasoak behar izaten direla. Ikaslearen aldetik etengabeko dedikazioa, eguneroko lan antolatua eta aurreikusitako plangintza ezarri eta betetzeko konpromisoa hartu behar dira.

Aipatutako kasuan ematen ziren arazoak (zoritzarrez gero eta ugariagoak dira) ez dira gauezik egunera azaltzen.

Hainbatetan aipatutako egoera horiek motibaziorik izan ez den sendia edota antzeko inguru baten hasi izanaren emaitza mingarri eta tamalgarria izaten dira eta, bestalde, sendi mota horietan ekimena inoiz indartu ez izanak, autonomiarako bideak

sustatu ez egiteak, lehenetasunak ezartzen irakatsi ez eginak eta eginbeharren betekizuna beste gauza batzuen gaineratik jartzeko ohiturarik landu ez izanak ere sorrarazten dute adierazitakoak bezalako emaitza samingarririk.

Sendia mota horietako gurasoen hobekuntzari dagokionez euren burua trebatzen jarraitzeko ekimen edota ahalegin modurik ez da izaten eta, bestalde, euren jarduera intelektuala oso hutsala edota hutsa izaten da. Arlo horietan gabezia handiak izanik ez dago irakasbide handirik inori irakasterik.

Esandakoa gogoan hartuz, bitxia da benetan, guraso batzuk semei exijentzia maila handiak ikasketetan jartzen dizkiela ikustea, agian nork bere buruari exijentzia mailak ezartzea baino inori exijitza askoz errazagoa izaten delako.

Esan gabe gelditzen da, aipatutako sendia mota horietan ahaleginaren, esfortzuaren eta etsipenik ezaren kontzeptuak oso gutxi elikatzen direla eta, ondorioz, urriak izateaz gain, ez da arlo horietan inolako ohiturarik izaten.

Bestalde seme alabek gurasoengandik jasotzen duten emozio-erantzunak urritasun maila bera edota txikiagoa du, arlo hori heziketa mailan ezinbestekoa izanik gurasoek horretan ezjakintasun eta heziketarik eza nabarmena agertzen baitute.

Seme-alabei maila jasoak exijitu baino lehen, laguntza emateko gertu egon eta pertsonaren garapen eta heziketan hainbesteko garrantzia duen arlo emozionalean ere behar duten arreta eskaintzeko jarrerak azaldu eta eskaini behar dizkiegu.

Helburuak (akademikoak edota beste izaera batekoak) lortuko direnaren bermea eta ziurtasuna ematen duten metodologiak eta/edo teknikak irakatsi ezik, ez dago inori ezer eskatzerik.

Ez du ezertarako balio (gehienetan gurasoen helburu bakarra izaten da) ikasleei euren

ikasketetan emaitza onak exijitzen ibiltzeak, guraso batzuk euren seme-alabak luzaroan jaso eta pairatu beharrean diren emaitza txarrak jasotzen dituztela ikustean seme-alaben gaitasun intelektualak zalantzan, (sinestezina benetan), jartzen baitituzte.

Gorago aipatutako ikaslearen amak, sinestezina izan arren, esan zuen bezala “...*por mucho que quiera que mi hija avance tengo otras prioridades...*” adieraztera ematen denean, argi dago, sakon sakonean, alabaren heziketa ez zela beretzat lehenetsi beharreko gaia, ikasgaiak gaintzea baino. Ikasgaiak gaintzeak ez du helburu izan behar. Helburutzat ikasgaiak gaintzea besterik ez badugu, mesede gutxi egiten diegu ikasleei eta euren heziketari, gaurko jana eta biharko gosea besterik izango ez baita.

Porrotak pertsonaren giza laidoztate sakona ekar dezake, giza gaitzespena eta erdeinua bultzatu eta sustatuz, erruduntasun sentimenduak sortaraziz eta gutxiagotasun-komplexuak ere areagotuz.

Porrotaren sentimenduak (aipatu ikaslearen nabaria zen) sentipen desberdinak sortzen ditu. Bakan batzuk bakarrik aipatzekotan, egonezina, erruduntasuna, segurtasunik eza, herstura eta ezgaitasun pertsonala ditugu eta horiek guztiak, era berean, gutxiagotasun kontzientzia jaso sorrarazten dute.

Aipatu pertsonak [ama-alabak, arrazoi desberdinengatik] euren ama eta ikasle zereginetan, hurrenez hurren, porrot egin zutenari buruz kontzientzia garbia izan zutenean, egoera erabat ahulean utzi zituen biak [bereizitasunez, ama], eta PRAKAGORRIra etorri ziren laguntza eske.

Egoera horietan, laguntzak, dedikazioak eta exijentzia maila handiko jarduerak esanahi garrantzitsua dute egoera larri horiei gaina hartu eta egoki bideratu nahi baldin badira behintzat.

Hezkuntzan, osasun arloan bezala, prebentzio-neurriak

hartu beharra dago ikasketetan bikain ibiltzerik nahi baldin bada, besteak beste formazio mailan ganoraz eta osasuntsu aritzeko modu egoki eta inteligentea horixe baita.

Ikasleri berari eta bere gurasoei ere artegatasuna, egonezina eta urduritasuna sorraraziko dien egoera larri eta aztoragarri ez dago zertan jasan beharrik.

Ezina nagusi denean, porrota ate-joka orroka azaltzen denean, laguntza beharri eskua emanda larritasun gorria eta kalte handiagoak eratorri ez daitezen kinkan arazoa bideratzeko presazko neurrien eske, gehienetan berandu baina, azaltzen dira gurasoak egoera bideratzeko denbora gehiegi urratsa eman gabe igarotzen itxi diotenaren damu eta aldi berean, erruz.

Behin aipatutako egoera larri horiek azaltzen direnean ez dago egoera, zuzendu, irtenbide egokia lehenbailehen aurkitu eta bere onera ekarri baino beste aukerarik. Beraz, lehen unetik, metodologiak, teknika desberdinak jaso eta erabiliz, antolaketa egokiz jardutea da bide zuzena.

Aldizkari honen hurrengo alean ondorengo gaia izango dugu hizpide: modu inkontzientean transmititzen diren [modu kontzientean ere esaten dira] mezu sakon jakin batzuk ikasleengan sortzen duten eragin ezezkorrak eta *ixaropenak* (ikasleena baino gurasoenak gehiago) bete ez egitetik eratorrita, ikasleengan sortzen den erruduntasun sentimendu larria ere, horretara euren eskola-porrotarekiko sentipena areagotu eta handituz.

Gure poztasunik gorena sendi askori laguntzeko aukera izatean datza, euren seme-alabek etorkizun akademiko eta intelektual hobea izan dezaten.

P R A K A G O R R I - n, pertsonak trebatu, hezi eta prestatzeko gure betidaniko konpromisoari zintzo ekinez, gure jardueran jarraitzen dugu [datorren apirilaren 27tik aurrera Kurutziaga Kalea 30 zkan. kokatuko gara] eskola zereginetan laguntza pertsonalizatua eskainiz eta ikasleei ikasten irakastera bideratutako teknika, metodologia, mintegi eta ekintzen bidez ikasketari emandako denbora optimizatze erak ezagutaraziz, autoestimua eta motibazioa gehituz, ulermen jasoko irakurketa azkarrerako tekniken berri emanez, ikasketarako metodo eraginkorrak landuz eta ahozko adierazpenaren hobekuntzarako mintegiak ere antolatuz. Laguntzeko gaitzu, ezagutu gaitzazu.

Gorka Aurre

irakurri 4
ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermen!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



HELBIDE BERRIA

PRAKAGORRI
Reading skills

Tel.: 94 491 57 63

Kurutziaga kalea, 30 DURANGO
prakagorri@prakagorri.es

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide

Durangaldeko Bizikleta Eskola aurkeztu dute, harrobia lantzeko proiektu bateratua

Lau txirrindularitza elkarteren artean sortu dute; 7-14 urte arteko 35 gaztetxogaz hasi dute bidea



Bizikleta eskolako gazteak Gerediaga auzoko ermitaren ondoan egindako aurkezpen ekitaldian.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Durangaldeko hainbat txirrindularitza taldek indarrak batu dituzte harrobia sustatzeko. Nor bere aldetik ibiliz gero eragin-kortasuna galtzen dela ikusita, eskualde mailako ikuspegia hartu, eta proiektu komun bat abiatu dute lau elkartek. Ahalgin horren fruitua joan zen astean aurkeztutako Durangaldeko Bizikleta Eskola da.

Durangoko, Elorrioko (atxondarrek barne) Iurretako eta Abadiño txirrindularitza taldeak dira proiektuaren sustatzaileak: "Txirrindularitza indartzeko, denok norabide berean arraun egin gura dugu. Indarrak batzeko modua da hori", azaldu zuten sustatzaileek, orain astebete Abadiño Gerediaga auzoko ermitan egin zuten aurkezpen ekitaldian. Eskolarentzat Rodri

Sainzek diseinatu duen logoak ere indarren metaketa hori islatzen du.

Kimu mailatik haur kategoriarira arteko (7-14 urte artekoak) 35 neska-mutikogaz hasi dute bidea, baina gura duten guztientzat atea zabalik dutela adierazi zuten. Aurkezpen ekitaldian gaztetxoak banan-banan aurkeztu zituzten bertaratutako txaloen artean. Ibon Atxotegi,

Joseba Gorostiza eta Asier Garcia izango dira gaztetxoekin lan egingo dutenak.

Lehenengo urte honetan, Caja Rural eta Gandarias altzari denda izango dituzte laguntzaile; baita Durangoko, Elorrioko, Atxondoko, Iurretako eta Abadiño udalak ere.

Eskolaren aurkezpena orain egin badute ere, dagoeneko martxan dago. Ohiko entrenamenduez gainera, besteak beste, Zornotzako Udaberri Klasikoa bertatik bertara ikustera joan ziren orain astebete taldekideak, eta hango bizikleta ginkanan parte hartu zuten.

Aste Santutik urrira arte (abuztua izan ezik), gazteenak astean birritan batuko dira, eta kimu eta haur kategorietakoak asten hiru bider. "Entrenamenduez bidegorri, belodromo eta leku seguruetatik egiten ditugu, zirkuitua adin bakoitzari egokituta". Gainera, hainbat ekin-tza egiten dituzte: ibilaldiak, jokoak, ginkanak eta Berrizko pista irteerak, adibidez.

Webgune bat sortu dute, eskolaren gaineko informazioa eguneratuz eramateko: www.durangaldekobizikletaeskola.com. Eskolan parte hartzeko izen-ematea ere bertan egin daiteke.

Txapela lortzeko hirugarren aukera baliatu gura du Berasaluze II.ak

Domekan binakako pilota txapelketako finala jokatuko du Bilbon

> PILOTA

Pablo Berasaluze berriztarrak Binakako Esku Pilota Txapelketako finala jokatuko du domekan, 17:00etan hasiko den jaialdian. Aitor Zubietak eta biek, Oinatz Bengoetxea eta Álvaro Untoria izango dituzte aurkari.

Lehenengo mailan binakako finala jokatzen duen hirugarren aldia izango da. Aurreko bietan ezin izan zuten txapelik jantzi. Lehenengo aukera gazterik etorri zitzaion, 22 urteagaz. Ruben Beloki bizkarzain zuela, 17-22 galdu zuen Jorge Nagorek eta

Inaxio Errandoneak osatutako bikotearen aurka. Bigarren finala ondo gogoan izango dute pilotazale guztiek. Partidua-ren lehenengo zatian erori, eta Akilesen tendoia apurtu zuen. Txapela Juan Martinez de Irujorentzat eta Jose Javier Zabalearentzat izan zen. Orain, 37 urteagaz, txapela jantzeko hirugarren aukera baliatu gura du berriztarrak.

Aurrez aurre bikote borrokari bat izango dute. Bengoetxea bere ibilbideko unerik gozonenetako batean dago; beti bezain zaila da berari tantoa egitea, eta arriskatzerako orduan inspiratuta dabil. Álvaro Untoria ordezkotatu zen txapelketan, eta lan aparta egin du. Iaz bigarren mailako buruz buruko txapelketa irabazi zuen, eta binakakoan txapeldunorde geratu zen.

Txirrindularitza lasterketa bana Traña-Matienan eta Elorrion

> TXIRRINDULARITZA

Emakumeen txirrindularitza proba bi lehiatuko dituzte asteburuan, Durangaldean: gaur, Elorrion eta, domekan, Abadiño Traña-Matienan auzoan. Gaur, 17:00etatik aurrera, erlojuaren kontra lehiatuko dira kadete, junior eta elite mailako txirrindulariak Elorrion. Gazeta auzorako bidegurutzean eongo da irteera, eta, 1,4 kilometroko zirkuituaren ostean, Elizburu kalean helmugaratuko dira.

Etzi, 09:30ean, Bizkaikoloreak txallengea hasiko da Traña-Matienako Trañabarran kalean. Lehen eta bigarren urteko kadetei bideratutako proba da. Muntzaratz, Elorrio, Miñota eta Berriz hartuko dituen zirkuituari itzuli bi emango dizkiote (33 km).



Pablo Berasaluzerentzat binakako hirugarren finala izango da. asegarce.com

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Atlético Madril B
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Iurretako
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Ugeraga
· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

Zaldua - Larramendi
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Mungia
· Barikuan, 20:00etan, Berrizburun.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Santutxu
· Domekan, 11:00etan, Elorrion.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Lezama
· Zapatuan, 18:15ean, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Goierri
· Zapatuan, 20:00etan, Durangon.

EUSKAL LIGA

Presion Break A - Etxebarri
· Zapatuan, 16:45ean, Berrizen.

Elorrioko Buskantza B - Scalibur
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrion.

MAILA GORENA

Sasikoa B - Elorrieta Ermita
· Zapatuan, 18:15ean, Durangon.

LEHEN ERREGIONALA

Abadiño Gaztatie - Santutxu
· Zapatuan, 17:00etan, Matienan.

Presion Break B - Usansolo
· Zapatuan, 19:15ean, Abadiñon.

EMAKUMEEN LIGA

Elorrioko Buskantza B - Bakio
· Domekan, 12:15ean, Elorrion.

Sasikoa - Stilo Berrio

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

> SASKIBALOA

LEHEN ERREGIONALA

Anbotopeko - Marrazoak
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Zornotza - Boskozaleak
· Domekan, 18:00etan, Ixerbekoan.

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Zornotza - Amets Ederra
· Domekan, 16:00etan, Ixerbekoan.

BIZKAIKO KOPA

Julza Zaldua - Jesuitinas
· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Peña-Arratibel / Ugalde-Aizpitarte

- Agirre-Galarza / Larrañaga-Imaz

· Eguenean, 21:15ean, Mallabian.

Domekan, igoera faseko bigarren partidua jokatu du DRTk

Kataluniako Sant Cugat errugbi taldearen aurka lehiatu da Arripausuetan



Sevillako porrota ahaztuta, motibazio handiz daude DRTko jokalariek. Jon Iglesias

> ERRUGBIA Eneko Azurmendi Durango Rugbi Taldeak igoera faseko bigarren konpromisoa dauka domekan, 12:00etan, Arripausuetan, eta Sant Cugat taldea izango du aurkari.

Sevillan jasotako porrot mingarria gaindituta dagoela eta partidu hori jokatzeko irrikaz

daudela adierazi du Ines Etxegibel entrenatzaileak: "Hamabost egun eduki ditugu errekupe-ratzeko, eta domekan aurreko partiduko akatsak zuzenduko ditugu: seguru nago".

Sevillan ez bezala, partidu guztian intentsitate maila altua mantendu behar dutela azpima-

rratu du Etxegibelek: "Aurreko partiduan hogei minutu on egin ostean, ez genuen errematatzen jakin, eta, gero, horrek faktura pasa zigun".

Horri buelta emateko, Etxegibelen ustez, "bai defentsan, bai erasoan, oreka mantentzea izan-goa da gakoa eta erronka".

Igoera fasea gaizki hasi bazuten ere, datozen bi partiduak etxean dituzte durangarrek, eta horri etekina ateratzen jakin beharko dute. Aurrean aurkari gogorra eta intentsitate handikoa izango dute, ordea. Sant Cugat taldeak Sevillari irabazi egin zion bere lehen partiduan (49-29), eta bigarren garaipenaren bila etorriko da Durangora.

DRTk, hurrengo partiduari aurre egiteko, ez du lesio garrantzitsurik. Bakarren batzuk minduta daude, denboraldia luzea eta gogorra izan delako, baina jokalariek guztiak entrenatzailearen esanetara egongo dira, jokatzeko prest.

Hala ere, partidu gogorra izango da, eta guztien beharra izango dutela azaldu du entrenatzaileak. Ahal izanez gero, Arripausuetara hurbiltzeko gonbita luzatu die herritarrei: "Ea domekan jendea etortzen den eta harmailak bete-beteta ikusten ditugun; jokalarientzat babes handia da hori".

Denboraldi biribila egin du orain arte DRTk, inork gutxi esperoko lukeen denboraldia. Orain, azkenengo kolpea eman nahi dute durangarrek, igoera lortuta. Lehenengo pausoa aste honetan irabaztea izango da.

ADITUAREN TXOKOA



Koikili Lertxundi

Futbolaria eta enpresaria

Zegaz lotzen da arrakasta?

Sarri egiten diot galdera hori nire buruari, eta erantzuna ez zait batere erraza egiten, arrakasta kontzeptua maiz deskontzeptualizaturik ote dagoen susmoa dudalako eta, gainera, hainbat faktorek baldintzatzen dutelako arrakasta bera. Horretan arrazoi kuantitatiboak (dirua, helburuak betetzea, emaitzak lortzea, asko saltzea...) eta kualitatiboak (ospea, norbanakoaren asebetetzea, testuingurua, gustuak, barne motibazioa...) nahasten dira.

Hortaz, zaila da kontzeptua definitzea, soilik aurretik aipatutako faktore guztiak aldeko jarriz lortuko baikenuke arrakasta "betea" izatea. Ordea, bakoitzaren balio eskalari erreparatuz gero, badago eskala horretan ene iritziz ezinbestekoa den balioa, hori barik ez baitut uste zoriontsuak izan gaitezkeenik. Barne motibazioaz ari naiz! Motibazio barik gertakari oro hutsal bihurtzen baita, irudiz sekulakoa izan arren.

Adibidez, laster Otxandioko Vulcano taldea mailaz igoko da. Horri loturik, zenbakiei buruzko aipamenak irakurriko ditugu, ordea, barne motibazioari buruz ezer gutxi! Horregatik lerro hauek baliatuko ditut, futboletik nahi-ko desmotibaturik nengoen (2014ko iraila) eta taldea bera ere etxepleguak botatzeko ez zegoen garai horretan izandako eraldatzea azpimarratzeko. Izan ere, entrenamendu bakan batzuk aski izan ziren jokalariek bakoitza motibatzen eta talde gisa helburu nahiz estrategia komunak jartzeko. Asmo horri eutsiz, bidea egin, eta aurrean zoriontsuak izatea lortu dugula esatera ausartuko nintzateke! Zorionak Vulcano! Eta urte askotarako!

Kulturaleko gazteak Ohorezko Mailara itzuli dira

> FUTBOLA Joseba Derteano Iaz jaitsi ostean, Durangoko Kulturaleko gazteek denboraldi bat nahiko izan dute futboleko Ohorezko Mailara itzultzeko. Denboraldi hasieran igoera ez zegoen Kulturaleko asmoen

artean. Jokalari berri askogaz, apurka-apurka berriro talde sendo bat egituratzea zen urte honetarako helburu nagusia. Baina oso denboraldi ona osatu du, eta Zarautz 0-2 menderatu ostean lortu du igoera.



Durangoko Kulturaleko jokalariek igoera ospatzen.

Playoffetan kantxa faktorea alde izango du Zornotzak

Martitzenean jokatu du lehenengo partidua

> SASKIBALOIA J.D.

Ligako azken txanpa indartsu bati esker, Zornotza Saskibaloia Taldeak laugarren amaituko du liga erregularra. Beraz, Urrezko Adecco Ligara igotzeko playoffetan alde izango du kantxa faktorea. Playoffetako lehenengo partidua datorren martitzenean jokatu du, 19:30ean, etxean. Arerio nor izango duen jakiteko, asteburuko azken jardunaldiko emaitzei begira egon beharko du taldeak.

